

San Martin jaiak
Ataun eta Araman

Idiazabal gazta:
izena eta izana

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12

Tfnoa.: 88 86 20

Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

Faxa: 88 91 18

LAZKAO

URBITARTE

sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN




TOKI-ALAI JATETXEA

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran

ZERAMIKAK

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Izaskun Salazar, Koldo Urresta-
razu, Urko Irastorza, Edurne Al-
bizu, Marta Agirrezabala, Ama-
goia Muruamendaraz, Iñaki
Murua, Aitziber Murua eta Na-
gore Goiburu.

Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Gerriko Sariketa atsedenaldian

Gerriko Sariketaren VIII. edizioko oinarriak iraila-urrian ateratzekoak ziren. Baina VI. eta VII. edizioa-ko lanak argitaratu gabe daudenez, 5 liburu guztira, eten bat egitea erabaki da. "Batetik, 7 edizio sariketa batean zerbait badela eta, gelditu eta orain arte egin-dako lana aztertzea beharrezkoa ikusi dugu. Beste alde batetik, 6. eta 7. edizio-ko lanak argitaratu ga-be daudenean 8.a antola-tzerik ez zuela merezi pen-tsatu dugu", dio Mari Joxe Madariaga Goierriko Eus-kal Eskolako ordezkariak.

5 lan horiek ez argitarat-zearen arrazoia, ekonomi-koa da. "Orain artekoak Eusko Jaurlaritzako Neka-zaritz eta Arrantza sailak argitaratu izan ditu. 3 an-tolatzaileek (Lazkaoko Udala, Maizpide eta Goierriko Euskal Eskola)

ezin dute gastu hau bere gain hartu. Orduan babes-le edo laguntzaile bila ga-biltza", dio. Argitaratzeko dauden 5 liburuak hauek dira: Ataungo Karobiak, Ataungo euskara, San Adriango inguruaren kon-daira, Zegamako euskara eta Joxe Felix Amundarain klasikoarena. "Guk nahiko genukeena da, lanak argi-taratuko dituen erakunde-ren bat bilatzea", dio Ma-dariagak.

8. edizioa udaberrian

Era berean, oinarriak alda-tu eta hobeto antolatze-ko asmoa daukate. Hori bai, gaia berbera izango da: Goierri eta goierritarrak. Azken batean Gerriko Sari-ketaren helburua, Goierri-ri buruzko bibliografia osat-zea baita. Hurrengo edizio-aren oinarriak udaberrian kaleratzeko asmoa dute an-tolatzaileek.

BOTA BERTSOA



Ekaitz Goikoetxea

Odolkiak

Doinua: Aita izena

Tipula, porru, txerri odol ta
txerri gantzen nahasketa,
odolki gozo batzuentzako
zer nolako errezeta,
mahaikide hartuz aldamenean
babarrunkada platerka,
sortu ohi duen ondorioa
berriketakoa ezta,
puzkar ta haizez izango degu
egun osorako festa. (ber)

Odolkiaren kofradiekin
jadanik hamabi urte,
azaroaren bederatzian
hamairugarrena dute,
Beasain hartuz topagune ta
Goierri hartuz txolarte,
paregabeko heste beteez
goza nahi bazenukete,
beasaindar eta goierritarrak
gonbidatuta zaudete. (ber)

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ERREZETA



Sabina Lasa
Otzaurteko Benta
Zegama

TRIPAKIAK

Osagaiak: tripakiak, olioia, tipulak, baratxuriak, piper berdea, piper mina, piper hautsa, tomatea, txekor "kañada".

Ontzi batean olioia, tipula ugari, baratxuria eta piper berdea jarri. Tripaki gordinak (ondo garbituta eta eba-kita) gehitu. Jelatina egiteko "kañada" bota. Piper hautsa kolorea emateko bota, eta baita tomate piska bat ere. Hezurra kendu eta honen muina eta kanpoko jelatina gehitu. Poliki-poliki egiten eduki, jateko moduan egon arte.

Zurezko goilara bakarrik sartu eltzean eta irakin gabeko ur edo saldarik ez bota.



Amagoia
Muruamendiaraz
Gerontologoa

Aiton-amonek, batez ere urteak aurrera doazen eran, bere seme-alaben eta famili artekoen laguntza behar izaten dute. Hainbat kasutan egoera hauek ez dira egun batzuetara edota hila-bete gutxi batzuetara mugatzen, denboran zehar luzatzeko joera dute.

Hau dela eta, zaintze lanak gogortuz eta jasan ezinak bihurtuz joan daitezke. Egoera zail hauetara iritsi aurretik, zaindarien bere burua zaindu eta jarrera positiboa hartzen badituzte, zainketaren zama eramangarriagoa egiten saia daitezke.

AHOLKUA

Agure zaindarien jarrera positiboak

Beraz, hona hemen lagungarriak izan daitezkeen zenbait aholku:

- Informa zaitezte agureak duen gaixotasunaz, zer den, zer eragin duen, eta zein ondorio izan ditzakeen. Era honetan, gauzak hobeto ulertuko dituzue eta gerora azalduko diren arazoei aurre egiteko prestatzeko aukera izango duzue.
- Deskantsatu ezazue behar adina.
- Zain ezazue zuen osasuna. Zoazte sendagilearengana eta azal iezaiozue zer duzuen, tristura, lo egin ezina, estutasuna, bizkarreko mina... edota nola sentitzen zareten.

- Bila ezazue egunean zehar zuentzako denbora, telebista ikusi, kafetxo bat hartu, zinemara joan... bi-debatez gogoko dituzun gauza horiek egiteko denbora.

- Ez galdu zuen lagunetik harremana, beraien laguntza baliagarria izan baitaiteke momentu zailetan; beharrezkoa balitz zer gertatzen den konta iezaiezue.

- Bizi zaitezte alai eta egizue barre ahal duzuen guztietan, maitasunarekin batera zuen ongizate eta zainketa lanetan beharrezko izango baituzue. Ez izan horretarako lotsarik.

Jarrera hauek guztiak zuen lana xamurtzen eta eramangarriagoa izaten lagunduko dizue. Azken finean, kontutuan izan behar dugu gaixoaren edota agurearen ongizatea, gure ongizatearekin zuzenki loturik dagoela.



ZEGAMA

*** Ogi integralak**

OKINDEGIA

*** Baserriko ogiak**

Eskuz egindako ogi naturala

Olaberria Kalea, 6

☎ 80 10 66 - 67 22 28 (etxea)

ZEGAMA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzale ofiziala

☎ 16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA



Xikel

ARMAIRU ENPOTRATUAK

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

NEVES

BANATZAILEA

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala

☎ Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN

TXANDAKA

Antzua izango ote?

Udazkena, hostoekin bate-ra gainerantzeko gauza gehienak erotzen hasi dira Goierriin; usoak, helikopteroak, animoak eta euskeraren erabilera. Beno, azken hau urtaro denetan berdintsu, nik uste.

Zergatik ote da? Zergatik OHO osoan A eredurik ez daukagun arren ez dugu kalea eta eguneroko bizitza euskaldundu? Zergatik ez dugu euskeraz egiten ikastetxe eta euskaltegietatik kanpora neurri berean?

Goikoek ez dute behar hainbeste egiten, konforme. Baina, hori esatearekin nahiz exijitzearekin ez dugu arazorik konpon-tzen. Garbi geratu da hau azken urteetan.

Beraz, nik proposatzen dut euskera eguneroko bizitzan erabiltzeko, gutako bakoitzak egin behar dugun gutxienekoa idaztea. Adibidez, giza eskubideen agiria-ren antzeko zerbait baina geuk bete beharrekoa, denok (agiria onartzeko prest gaudenok) beteko duguna eta gainera, urtero ebaluatuko genukeena horretarako eratu-ko litzatekeen talde baten bidez.

Bukatzeko, denok dakigu zer egin behar genukeen baina askotan idatzita jarri arte ez gara erabat kontzientziatzen. Gaurko gizarte erabat idatzizkora makurtuta baitago!

Iñaki Murua



Zer iruditzen zaizu telebistan hainbeste futbol ematen?



Mari Jose Baztarrika

**24 urte, langilea
ataundarra**

Ez zait batere gustatzen futbola, aspergarria da. Egunero egoten da telebistan partiduren bat, ez dago besterik. Etxean ikusten dute futbola.

Axular Barandiaran

**18 urte, ikaslea
ordiziarra**

Ez dut asko ikusten baina noizean behin partiduren bat ikustea gustatzen zait. Duda egiten dut jendea futbolarekin nazkatuko ote den, jendeari futbola ikustea bakarrik erakutsi baitiote.



Gorka Egialde

**24 urte, langabetua
idiazabalدارra**

Gustatzen zait futbola eta larunbat gauetan normalean ikusten dut partidua. Azkenerrako nazkatu egiten da egunero futbola ikusten. Dena den niri saskibaloia gehiago gustatzen zait. Aupa Baskonia!



OSKARBI
OINETAKOAK

Dr. Albin Martens

Mota guztietako eta adin guztien-tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 **BEASAIN**

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

RENAULT
AGENTZIA

Autowag, s.a.

VW Audi

Polo

Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN

ZINEA

LEGORRETA:

Azaroak 4, 'Braveheart', 20:30etan, Herri Zinemian.

Azaroak 11, 'Los puentes de Madison', Herri Zinemian, 20:30etan.

GOIENIZ:

Azaroak 14, 'Leon, the pig farmer', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Abierto hasta el amanecer'. Larunbata 2: 19:30 - 22:15; igandea 3: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 4: 22:15.

ORDIZIA:

'Cuando salí de Cuba'. Osteguna 31: 22:15; ostirala 1: 22:15.

'Striptease'. Larunbata 2: 19:30 - 22:15; igandea 3: 19:30 - 22:15; astelehena 4: 19:30.



'Leon, the pig farmer'

Vadin Jean - Gary Sinyor (Britainia Handia 1993)

Filma egiteko aurrikusi ziztuzten 3 milioi librak lortu ez arren, lan xarmagarri honen autore gazteek bizibizi kontatu ahal izan zuten, egun batean bere aita benetako aita ez dela konturatzen den mutil juduaren istorioa, intseminazio artifizialez ernaldia izan baitzen.

Leonen atsekabea areagotu egingo da gainera, intseminazioan izandako akats baten ondorioz bere aita biologikoa, judua izan beharrean, txerri hazle "fedegabe" bat dela jakitean.

Diru eskasia gaintutuz, filme honen itxura eta akabera ona ezezik deigarria ere badela esan dezakegu. Beraz, ohiko ereduetatik at egindako komedia atsegin eta barregarri baten aurrean gaude, argazki eta musika bikainez borobildua.

BERTSOAK

ATAUN:

Azaroak 8, A. Egaña, J. Sarasua, A.M. Peñagarikano, S. Lizaso, U. Iturriaga eta J. Munduate, Auzoeta Kiroldegian, 22:30etan.

MUSIKA

ARAMA

Azaroak 9, Etxakit taldea eta ondoren Gozategi herriko plazan, 33:30etan.

BEASAIN:

Azaroak 1, Tolosako abesbatzen lehiaketan parte hartzen duten Cappella Lugdunensis eta Phonandre abesbatzak, Parrokian, 20:30etan.

Azaroak 2, Maixa eta Itziar taldea, San Martin Plazan, 23:00etan.

Azaroak 3, Goierriko Txistularien Eguna: kontzertua, San Martin plazan, 12:30etan.



Azaroak 7, Javier Arrillaga, Usurbe Antzokian, 20:00etan. 500 pezeta.

ORDIZIA:

Azaroak 2, Errusiako Scarlet abesbatza gaztea, Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 3, Alemaniako Frans Listz Kamara abesbatza, 20:00etan, Parrokian.

ANTZERKIA



BEASAIN:

Azaroak 2, kale-antzerkia: 'La machina' taldearen 'Duende' lana, San Martin Plazan, 19:00etan.

Azaroak 3, kale-antzerkia: 'Pinpilinpauxa' taldearen 'El Bailecito' ikuskizuna, Zaldizurreta plazan, 19:00etan.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Azaroak 6, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, Ezkia-ga Auzo Etxean, 17:30etan.

Azaroak 9, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak. Usurbe Antzokian, 17:30etan. Sarrera: 500 pezeta.

ORDIZIA:

Azaroak 12, 'Lamiak' ipuin kontaketa, Udal Liburutegian, 17:00etan.

Arkupé

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Malndreak - Mahai oihalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

M. Zeberio

J. M. Barandiaran Plaza

88 00 84

ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

HITZALDIA

BEASAIN:

Azaroak 6 eta 10, 'Testamentua, herentzia, banaketa' -ri buruzko hitzaldia, Fernando Rodriguez Notariaren eskutik, Asmuben, 10:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 8ra arte, Mamen Garciaren erakusketa, Aterpe Tabernan.

Azaroaren 3ra arte, V. Aire libreko pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa.

Azaroaren 8tik 17ra, Jose Luis Zumetaren erakusketa, Usurbe Antzokian.

Azaroaren 9tik 29ra, Javier Fernandez argazki erakusketa eta diapositiba emanaldia, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Azaroaren 5etik 9ra, 'Kaixo ura!' erakusketa Barrenan.

Andu Lertxundi

'Piztiaren izenean' liburua aurkeztuko du Andu Lertxundi idazleak, Beasaingo Udal Liburutegian, 19:30etan. Antolatzailea: Kultur Kide.

Azaroaren 9tik 22ra arte, Manuel Salgadoren eskultura erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 3, Finalistaren eguna, Garinen

Azaroak 10, Txindoki.

Arrano Kirol Taldea:

Azaroak 1, 2 eta 3, La-kartxela-Hiru Errege Mahaia-Anie.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 1, 2 eta 3, Irati-Orhi.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 3, Aloña-Katibera-Udana.

Azaroak 10, Arano-Adarra

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Gas gas motorra salgai, Contach 327 zm². 93. urtekoa. Telefonoa 882112. Eguerdietan deitu.


Lana:

☐ Lanak ordenadorez pasatzen ditut. Euskaraz eta

erderaz. 88 13 03. Isa. Beasain.

☐ Kitarra jotzeko klaseak hartu nahi nituzke. 160744. Eguerdietan deitzeko 885513.

☐ Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 889547 eguerdietan.



GOARDIAKO FARMAZIAK

7: Azpilikueta.

8: Jauregi.

9-10: Azpilikueta.

11: Lournaga.

12: Cuesta.

13: Arriola.

14: Urbizu.

30: Lournaga.

Azaroak 1: Cuesta.

2-3: Atorrasagasti.

4: Arriola.

5: Urbizu.

6: Atorrasagasti.

BACH MUSIKALDIA ORDIZIAN

- **Azaroak 13**: Isabel Alvarez eta Eligio Quinteiro (soprano eta laud), 19:30etan, Barrenan.
- **Azaroak 14**: Farinelli (bideoa), 19:30etan, Barrenan.
- **Azaroak 15**: Cuarteto Zarabanda, 19:30etan, Barrenan.
- **Azaroak 16**: The Choir of New College, Oxford, Parrokian, 20:30etan.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA



Marta Agirrezabala
EHNE sindikatuko kidea

“Inguru bati parke naturalaren izendapena eman nahi zaiola esan aurretik afektaturiko sektore guztiok jakin beharko genuke parke natural batek ze suposatzen duen herritarrentzat eta eztabaida zabal batetan diskutitu beharko litzateke ea ze erabilerari eman beharko litzaikeen lehentasuna Parke Natural batetan eta sortzen diren mugak nola ordainduak izango liratekeen”.

Euskal Herrian Parke Natural hitza, berria da gehienontzat eta dagokionaren aldetik (kasu honetan, Administrazioari), inguru bati parke naturalaren izendapena eman nahi zaiola esan aurretik afektaturiko sektore guztiok jakin beharko genuke parke natural batek ze suposatzen duen herritarrentzat eta eztabaida zabal batetan diskutitu beharko litzateke ea ze erabilerari eman beharko litzaikeen lehentasuna Parke Natural batetan eta sortzen diren mugak nola ordainduak izango liratekeen. Pauso hori eman ondoren, has gaitezke eztabaidatzen, beti ere interes afektatu guztion artean, nola eraman aurrera parke natural baten funtzionamendua.

Baina ze bide eraman da orain arte, Euskal Herrian deklaratu diren Parke Naturalekin?

1.- Herritarrek inposizio modura hartzen dute, ez delako elaborazio prozesuan beraien kontatzen, edo kontatzen da modu testimonial batetan soilik, hau da tekniko batzuk Ordenazio plana egin ondoren txosten potolo bat pasatzen dute, herritar soilak ulertzeko nahiko zaila eta alegazio epe bat irekitzen dute aldaketak sartzeko, baina zorritzarrez haserako dokumentutik ez da ia ezer aldatzea lortzen.

2.- Ematen den informazioa oso anbigua da, izan ere administrazioetik egiten den adierazpen nagusia da

Parke Naturalak

“zuen lurretan ez da ezer egingo zuek ez baduzue nahi”. Honen aurrean, herritarrek desinformazio izugarria izateaz gain, prozesu berria da eta prozedura horretatik guztiz kanpo sentitzen dira, beraien lur eta herriaren etorkizunaz.

3.- Erabilerei dagokienean, orain arteko Parke Naturalean, erabilera publikoa eta kontserbazioari, lehen sektoreari baino lehentasun handiagoa eman zaio. Baserritarren ikuspegitik, inguru horiek ondo kontserbatuta dauden zonak badira, orain arte hori gestionatu dugunok lana nahiko ongi egin dugulako da eta hemendik aurrera ere kontserbatu nahi bada baserritarren lana ezinbestekoa izango da. Baina horretarako Parkearen lehentasuna nekazaritza izan behar du eta baserritarrok erabakietan parte zuzena hartzeaz gain, Parkeak izango dituen aurrekontuetan neurri bereziak jarri beharko dira, baserritarrek formatzeko, iharduerak dibertsifikatzeko eta nekazaritzarako lurra babesteko besteak beste; lurrik ez duten gazteak ikus dezaten nekazaritzan bizibidea ateratzeko aukera.

4.- Esan bezala, orain arteko parkeetan hirugarren sektoreari lehentasuna eman zaio

eta herri txikiak hustutzeaz gain, azpiegiturak ere juxtu juxtuak dituzte (umeak eskolara ere kanpora eraman behar dira, hiritar kulturarekin gehiago identifikatzen direlarik, herrikoarekin baino); eta gainera Lurralde Antolaketa-rako planetan herri txiki gehienak bigarren etxebizitzetarako herri bezala kontsideratzen dira. Aurreko puntuan esandakoa bete dadin, nekazari herrietan bertako jendea bizitzen gelditzeko, herrien garapena herritarrei begira egin behar da eta ez kanpokoei begira. Zerbitzuen sektoreak osagarria izan behar du eta ez nagusia, dena den nekazaritzarako neurri bereziak ez badira hartzen zerbitzuen sektoreak gainditu egingo du, herrien nortasuna eta gure kultura arriskuan geratuko litzateke.

Beraz, hau da aurreko parkeen izendapenean eman den prozedura eta hortxe azaltzen dugu EHNE baserritarren sindikatuaren ustez ondorengo parkeek nondik bideratu beharko liratekeen. Aizkorriko Parkeari dagokionean, badi-rudi berriro aurrekoen akats berdinak egiten hasiak garela, jendea oso desinformatuta baitago. Baina oraindik garaiz gaude eta Administrazioari eskatzen diogu, inguru horretako jendea prozesu honen partaide sentitu ezean, beste behin ere inposizio modura hartuko dutela, eta bide ego-kiagoa emateko izendapen berri honi.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pza. Karta 2.000 pza batz besta

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierrirako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

EUSKAL KULTURAREN BATZARREAREN KANPAINA MARTXAN:

Eman euskarari berea!

Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) 'Eman euskarari berea' kanpaina jarri du martxan. Herri eta auzoetan, euskara eta berreuskalduntze prozesuaren egoera larriaren kontzientzia zabaltzea du helburua batetik, eta bestetik, hizkuntz politikan aurrerapusuak aldarrikatzea Euskal Herri osoan.

EKB euskararen egoerak kezkatzen du eta kezka hori Euskal gizarte osoari helearazi nahi dio. Kanpaina aurrera eramateko, Goierriko euskara taldeak eta euskararen alde lanean ari direnak euskararen "benetako" egoeraren berri ematen ari dira. Mari Jose Madariagaren esanetan, "datuak negatiboak dira, baina errealak. Azken urteotan euskararen aldeko instituzioen politikak emaitzak eman dituela esan zaigu eta politika hori urrunegi joan ote den eztabaiatzea eskatzen zaigu ordezkari politiko batzuen aldetik. Horren aurrean, euskararen aldeko herri ekimenak garbi azaldu nahi du, euskararen aldeko instituzioen politikak lurralde batzuetan ez duela lortu hiz-



kuntzaren berreskurapen politika modu orokor, sendo eta atzeraezin batez bideratzea, eta horrek nabarmen uzten duela hizkuntz normalizazioaren aldeko borondate politiko eskasa".

Aurre egin beharreko egoeraren ezaugarri nagusiak hauek dira EKBren ustez:

- ✓Euskal hiztunak gutxi izaten jarraitzen dugu eta gehiago izatera iristeko bideak nabarmen indartu behar dira.
- ✓Euskarazko irakaskuntza ez da guztia erdira iristen EAEn, askoz atzerago Nafarroa eta Iparraldean.
- ✓Instituzio politikoetan euskararen erabilpena oso maila baxua dago, eta administrazioan euskararen erabilpena arautuko duen plana falta da.
- ✓EAEn eta Nafarroako zonalde batzuetan aitortzen zaizkigun hizkuntz esku-

bideak ez dira betetzen, eta askotan bere erabilpenak zigorra dakar.

- ✓Euskararen aldeko herri ekimenak ez du onarpen eta sustapen politika bat aurkitzen instituzio politikoetan, eta euskalgintzako proiektu asko gelditu krisian dago.
 - ✓Gizarte esparru garrantzitsuetan euskarak baztertua jarraitzen du (lan mundua, justizia, administrazio hainbat atal...).
 - ✓Euskara ez da ofiziala oraindik Nafarroa osoan eta Iparraldean ez dauka inolako babes legalik.
- Era honetan, Euskal Herriko instituzio politikoei euskararen normalizaziorako plangintza orokorra eskatzen du EKBk. "Zehazki, alderdi politikoei, euskararen aldeko borondate politikoan oinarrituz, hizkuntzaren normalizazioa eta berreskurapena gizarte lehen-

tasunetan sar dezaten, eta beharrezko baliabideak jar ditzaten. Era berean, hizkuntz normalizazioa herriaren parte hartzearekin burutzea: herritarrek parte zuzena hartu behar dute politika horren gauzapean beraiekin baitira inplikatu zuzenak", gaineratu du Madariagak. Herritarrei era berean zera eskatzen die: "instituzioen aurreko aldarrikapena babestu dezaten eta Plantintza Orokorraren aldeko herri dinamikan parte har dezaten, bakoitzak bere esparruan hizkuntz normalizaziorako plangintzak bultzatuz".

Kontzientziazioa

Mugimendu gehien dagoen lekura irsten saiatuko da 'Eman euskarari berea' kanpaina. Udaletxe, Postetxe, Anbulategi, Aurrezki Kutxa, Ikastetxe... Goierriin hezkuntza mailan, D erduan matrikulaturikoen portzentaia EAEko %42 aren oso gaitetik dago. "Hori zoriontzekoa da, baina ez da hor gelditzen. Unibertsitatean zer? Oso ikasketak gutxi dira euskaraz egin daitezkeenak", dio Madariagak. Kanpainaren bukaera, abenduaren 14an Bilbon egingo den manifestazioarekin bukatu nahi da.

Ander Mujika

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 88 60 70
BEASAIN

lues rothers
BEASAIN

**AUTOESKOLAKO
IRAKASLE EGIN ZAITEZ**

**HILEAN 200.000
PEZETA INGURUKO
SOLDATA**

**INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37**



Maniobra militarrek Goierriin

aUrriaren 21etik 26ra bitartean, Espainiar armadako brigada jauskarien edo parakaidisten militarrek maniobratan aritu ziren Goierri aldean. Istripua izan zuen helikopterotako batek. Usurbeko gurutzearen hegala jo eta lurrera erori baitzen. Helikopteroa ostialeararte egon zen Usurbeko tontorrean. Azkenean, pusketaka eraman behar izan zuten, erreskatea zaila baitzen.

Maniobra hauen berri, istripua gertatu eta gero bidali zuen Gobernadore Zibila Beasaingo alkateak den Jon Jauregik Goierriko alkateen bozeramaleak adierazi zuenez. Era honekin, "Goierriko biztanleentzat nahiz eta beren ondasunentzat guztiz arriskutsuko gauzatu diren manio-bren aurrean", urriaren 25ean Arama, Idiazabal, Gabiria, Lazkao, Zaldibia, Itsasondo, Olaberria, Mutiloa, Gaintza, Beasain eta Ordiziako alkateek (besteek lanagatik ezin izan zuten bileran parte hartu) manifestu bat kaleratu zuten. Honela dio hitzez hitz:

"1.- Goierriko eskualdean brigada jauskariak gauzatu duten militar okupa-

zioa ez dugula onartzen eta salatu egin dugula.

2.- Bigarrenik, guri dagokigun Goierriko eskualdearen eremuan, edozein militar maniobra egitea energikoki gaitzesten dugu eta bereziki ondorengo arrazoi hauengatik: guztiz jendeztaturiko ingurune baten maniobra hauek gauzatu direlako goierritarren armonia eta pakea apurtuz; eta goierritarren artean alarma nabarmena sortu duelako.

3.- Gertakizun honen arduradunen jokaera gaitzesten dugu zeren beren jokararak udalerrien autonomia nahiz eta udal agintarietako

eta goierritarrekiko errespetao zapaltzen duelako.

4.- Azkenik, gerta daitezken tankera honetako militar maniobra berrien aurrean gure aurkaritza edo oposizioa adierazi nahi dugu bere giza nahiz eta politiko legitimitate edo zilegitasun ezagatik".

Hainbat goierritarrek salaketak aurkeztu dituzte euren herriko udaletxeetan, militarrek ikustean sortu duen beldurragatik. Horixe gertatu zitzaizen Zaldibiko haurrei. Iñaki Elizegi alkateak azaldu zuenez, "militarrak menditik eguerdiko 12.00etan jaitsi ziren, Herri Eskola ondora, haurrak ateratzen diren une berean. Helduok inpresionatzen bagaituzte, pentsa haurrak". Itsasondoko ehiztariekin ere arazoren bat edo beste izan omen zuten. Eta Lazkao-mendiko baserritarrak kexu azaldu ziren, helikopteroak hain baju hegan egitean, ganadua aztoratu eta izutu egiten zelako.

"Militarren okupazio" honen aurrean, Goierriko Herri Batasunak, manifestazioa egin zuen urriaren 25ean, Beasainen.



Goierriko 11 alkatek urriaren 25ean eman zuten prentsaurrekoa, bertan manifestu bat irakurri zuten.

Joxe Mari Lizarraga

11 urte eta erdi kartzelan egon ondoren, urriaren 18an aske gelditu zen Joxe Mari Lizarraga ataudarra. 15 urteko zigorra ari zen betetzen, 16. orrian duzue berri egindako elkarriketa.

Atxotegi - Irastorza

Caceresen preso dauden Iker Atxotegi zaldibitarra eta Asier Irastorza ordiziarra gose greban hasi ziren urriaren 23an.

Josetxo Zeberio

Urriaren 15ean epaitu zuten Costa Rican Josetxo Zeberio errefuxiatua, dokumentu faltsuak edukitzeagatik. Epaitegi Nagusiak urtebeteko kartzela zigorra eskatzen du. Fiskalak bi urteko kartzela zigorra eta Estatu Espainiarrera kanporatzea eskatzen zuten. Amnesty International taldeak eskutitz bat bidali dio Costa Ricako Errefuxiatuentzako Bulego-ko zuzendariari. Zeberio kanporatuz gero izan daitezkeen tortura eta tratatu txar-erregatik kezkatutik.

Aristrain - CAF

1995eko salmentei dagokienean, Euskal Herriko enpresen rankingean, Aristrain eta CAF aurrean ibili ziren. Aristrain 8.enean eta CAF 14.enean. Aristrainek 83.854 milioi pezetako salmentak egin zituen; CAFek 43.253 milioioak.

CAF

Atmosferara botatzen diren partikulak eta orain artean prozesuan galdu izan den energia berreskuratzeko asmoz, Ingurugiro plana egin du CAF enpresak. 34 milioi pezetako aurrekontua du. Eusko Jaurlaritzak % 50a ordainduko du.

**HASI ZURE ETORKIZUNA
LANTZEN****GUK LAGUNDUKO DIZUGU
LEHEN URRATSA EMATEN****ZEURE ENPRESA BERRIA SORTZEKO
HONA GURE LAGUNTZA**

Zeure enpresa proiektua baidin baduzu, zator
GOIEKIn, eta zure helburua garatzen hasteko
urrats gaitiak ezagutaraziko dizkizugu.
Profesionalen laguntza izango duzu, zure
proiektua azken bururaino eramateko ezagutu
beharreko gai guztiari buruzko aholku emanaz.

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ
1996KO AZAROAREN 18RA ARTE
TELF: 16 18 31 - 16 15 37

Antolatzailea: **Goieki**
Kofinantzia: **FONDO SOCIAL EUROPEO**

ADAPT**Enpresa ekimen be-
rriak eta autoen-
plegua sustatzeko
programa**

Goieki, Goierriko bailarako
garapen agentziak, 'Enpresa
Ekimen Berriak eta Autoen-
plegua Sustatzeko II. Progra-
ma' jarriko du martxan. Be-
ren enpresa egitasmoa egia
bilakatzeko asmoa duen edo-
norri zuzendua dago.

Programa honen lehen fasea
Enpresa Gestiorako Ikastaro-
arekin hasiko da azaroaren
25ean. Ikastaro honek 100 or-
duko iraupena izango du eta

ondorengo moduluetan dago banatua: negozioaren bidea;
produktua edo zerbitzua; merkatuaren azterketa; finantziar
arloa; bankuekin negoziaketa; gai juridiko eta laboralak; en-
presarien adierazpenak.

Ikastaro honen ondoren sustatzaileek beren enpresa
proiektua lantzeko aukera izango dute Goiekik horretarako
prestatu dituen instalakuntzetan. Dena dohainik izango da.

Enpresa proiektua bukatu ondoren, bideragarria dela ikus-
ten bada, Goiekik enpresa sortzeko jarraitu behar diren pau-
soak, lortu beharreko diru-laguntzak, kokapenerako aholkua
eta abar tramitatzen lagunduko die enpresari berriei, tutoritza
eta jarraipen baten bitartez.

Enpresa Gestiorako Ikastaroa nahiz bideragarritasun pla-
naren lantze prozesua, Goiekik Ordiziako industrialdean
duen pabeloian (29 zenbakia) egingo dira. Programa honetan
interesatuak aurkitzen direnek azaroaren 18a bitartean eman
dezakete izena, 16 18 31 edo 16 15 37 telefonoetan.

Txistulari eguna

Azaroaren 3an ospatuko da
Beasainen, Goierriko Txis-
tularien eguna. Goizeko
9.30etan Beasaingo Udak
Txistulari Bandaren kalejira
izango da. 12:00etan, Goie-
rriko Txistularien kalejira
eta 12:30etan kontzertua
San Martin Plazan. Kontzer-
tuaren zuzendaritza Jose
Agustin Olanoren esku
egongo da.

Gerontologia ikastaroa

Hirugarren Adinaren Insti-
tuto Komunitarioak Geron-
tologian espezializatutako bi
ikastaro antolatu ditu, azaro
eta abenduko hilabetetan,
Tolosan. Pertsona nagusien
potentzial gizatarra eta per-
sonala garatzeko zerbitzuak
eskaintzea, eta adinekoari
ardura integrala eskaintzeko
eta berorren bizi-kalitatea
hobetzeko kezka bizi duten
profesionalak eta herritarrak
hezitzea dira ikastaroaren
helburuak. Hizlaria Ama-
goia Muruamendiraz lazka-
otarra izango da. Argibidee-
tarako telefonoa: 79 02 11.

Miren Aranburu

'Etorkizunaren memoria'
diskoa kaleratu berri du Mi-
ren Aranburu lazkaotarrak.

**Takolo, Pirritx eta
Porrotx pailazoak**

Azaroaren 9an, 17:30etan,
Beasaingo Usurbe Antzo-
kian, Takolo, Pirritx eta
Porrotx pailazoak bideoa
grabatuko dute. Bideoa
Euskal Herri osoan zabal-
duko da ondoren. Ikuski-
zuna ikusi eta bide batez
bideoan atera nahi izanez
gero, hortxe duzu aukera.
Sarrera: 500 pezeta.

Aktore (Goenkaleko Mai-
der) eta bikoizketa lanagatik
da ezagunagoa Miren, baina
Jean Louis Hargousekin ba-
tera osatu duen lana, bere bi-
garren diskoa da. Jazza, bos-
sa-nova, balsa, blues-a. Hi-
tzak lazkaotarrarenak dira,
ahotsa ere bai. Lehenengo
diskoa 1977an kaleratu
zuen.

Ataungo Korrikaldia

Ataungo Hiru Auzoetako
XVII. Korrikaldia azaroaren
3an izango da. Irteera goize-
ko 11.00etan izango da. Pro-
bak guztira 17,8 kilometro
ditu. San Martin, San Gre-
gorio, Aia, San Gregorio,
San Martin ibilbidea egin
beharko da.

INDUSTRI-TEKNIKARI IKASTAROAK

Formazio Sistema Irekia
Multimedia Metodologia - Interaktiboa

- * ELEKTRIZISTA INSTALATZAILE KARNETA
- * AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK
- * ORDENADOREZ LAGUNDUTAKO DISEINUA
- * INJEKZIOZKO TERMOPLASTIKOAK
- * ELEKTRONIKA ANALOGIKOA
- * ELEKTRONIKA DIGITALA
- * ELEKTRIZITATE INDUSTRIALA
- * AUTOMOBIL DIAGNOSIA

INFORMA ZAITEZ**40 05 98 edo 39 74 37****SUTEGI**
t a b e r n a

San Gregorio ☎ 18 03 54
ATAUN

KAXETA
jatetxea

☎ 18 01 45
ATAUN - AIA

Beasaingo Odolki txapelketa azaroaren 9an

Iaz lehenengo aldiz, odolki lehiaketa elkar-teetatik atera eta plazan egin zen. Herriarregana gerturatu zen txapelketa eta arrakasta handia izan zuen. Gauzak honela, aurt-en ere plazan egingo da. Azaroaren 9an, larunbatean, izango da zita, Beasainen.

Dena den, aurt-en ere bada beste berrikuntza pare bat: batetik odolkiak saltzen jarriko dira; eta bestetik, bertako produktuekin (gazta, babarrunak, ezti, baserriko ogia...) osatutako azokatxoak egingo da. Beasaingo Julki gozotegiko espezialitatea, 'Martintxoak', ere salgai izango dira. Hori bai, iaz bezala ardo eta lehiaketara aurkeztutako odolki pintxoak 100 pezetan izango dira salgai.

Lehiaketa ostiralean hasiko da. Odolkiak Bareak elkartean aurkeztu beharko dira 16:00etatik 21:00ak bitartean. Aurt-en kontuan hartzekoa da, iaz ez bezala, 6na odolki aurkeztu beharrean, 10na aurkeztu beharko direla. Sobratzen diren odolkiak pintxo bezala saldu nahi baitira.

Egun handia hala ere, larunbata izango da. Goizeko 9etan azoka prestatzen hasiko dira eta odolkiak egosten jarriko dituzte. 60-90 minutu bitartean



Iazko irabazleari, Kepa Loidi oriotarrari, saria ematen.

izango dituzte eltzean. Prozesu hau antolatzaileen esku izango da.

Karlos Argiñano

12:00etan, dastaketa hasiko da. 13:00ak aldera espero da saribanaketa egitea. Dastaketaren zuzendaritza lanak Karlos Argiñano egingo ditu. Gainontzean, epaimahaia hauek osatuko dute: Jose Manuel Garmendia (Kattalin jatetxea), Patxi Castillo (Castillo), Jose Inazio Urkiola (Urkiola jatetxea), Kuko Villanueva (Kuko jatetxea), Xabier Martinez (Martinez jatetxea), Juanito Rubio (Oiangu jatetxea), Eva Argiñano sukaldaria, Roberto Ruiz sukaldari tolosarra; Pello Garcia Amiano, Javier Iturrieta eta Juantxo Larruzea kazetariak; Juanbi Erauskin Ordiziako alkatea; Ordiziako

Gazta kofradia, eta zenbait pelotari.

Odolkia baloratzeko orduan kontuan hartu beharko dituzten erizpideak hauek dira: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-neurria.

Txapelketara aurkeztuko diren odolkiek ondoko ezaugarriak bete behar dituzte: txerriaren odola eta gantza, heste naturaletan sartuta eginak. Kasu guztietan tipula eta porrua izango dute, espezieak lagundurik egon daitezke.

Sari bakarra banatuko da: zeramikazko platera eta 25.000 pezeta. Hori bai, irabazleak otsailaren 5eko (Loinazko San Martin eguna) urteroko bazkarirako odolkia prestatu beharko du.

Gero eta gehiago

Gero eta gehiago dira txapelketara aurkeztu diren odolkgileak. Iaz 26 aurkeztu ziren eta aurt-en 30era iristea espero dute antolatzaileek. "Jendea gero eta gehiago konturatzen da Beasaingo txapelketa oso garrantzitsua dela. Lehiaketa hau irabazteak urtean odolki kilo asko saltzea suposatzen du. Beasaingo odolkiaren izena irabaztea, aurrera joatea da", dio Martin Urkiola Odolki Kofradiako lehen-dakariak.

Iaz, ohi ez bezala, Orioko Kepa Loidik irabazi zuen. Goieritik kanpora joan zen saria. "Guk Beasaingo odolkia aipatzen dugu, baina eskualdean ere odolki ona egiten da. Normalean Beasain ingurukoek irabazten dute. Iazkoa salbuespena izan zen. Txantxetan esaten zen: 'Oriokoak irabazi duela? Arrain piska bat sartu du edo...'", dio Urkiolak.

Azken orduan jakin dugunez, Ordiziako hainbat odolkgile ez da lehiaketara aurkeztuko, 'Beasaingo odolkia' izenaren ordeztu 'Goierriko odolkia' izena erabiltzearen aldekoak direlako.

Loinaz Agirre



Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"

Nagusia, 11
☎ 88 82 37
BEASAIN



JESUS M. DEBA
ODOLKIGILEA

Nekazaritza eta Arrantza Sailak baimendua

- Berdura eta arrozdu odolkiak
- Mondejuak

Bereziak Harategi eta Jatetxeentzako

Anduaga Industrialdea, 9. Tfnoa: 72 17 10 • **EZKIO-ITSASO**

'FABRIKA HAUNDIE: BEASAINGO CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES'

Elena Legorburu: "CAFeko nagusiek, ausardia handiz, asko arriskatuz, beti egin die aurre egoera txarrei"

Donostian bizi den ordiziarra da Elena Legorburu. Filosofia eta Letretetan Doktoratua. Historia ekonomikoaren arloan lan asko egin. Aukera aurkeztu eta ideia asko gustatu zitzaion. Liburu honetan, CAFek Beasainengan izan duen eta duen esanahia bilatu nahi izan du.

G.- Beasain herri berezia dela esan daiteke?

E.- Berezia da benetan. Berezia Gipuzkoa mailan da. Oso enpresa gutxi baitaude Gipuzkoan CAFek duen trazendentzia. Gipuzkoan nabarmentzen den enpresa mota, pymeak, enpresa txikiak dira. Baina CAFen neurriko enpresak Beasainen eboluzio zehatz bat markatu du. Europa mailan, Europako industriarik onenekin dago parez pare. Aspektu askotan CAFek Europako burgesia altuaren eredu jarraitzen du.

G.- CAFek zer suposatzen du Beasainentzat eta Goierrirentzat?

E.- Ekonomikoki, motor ekonomikoa izan da. CAFek eragin du Beasainek era batean eboluzionatzea. Enpresa honen inguruan beste industria batzuk eraiki dira, CAFen negozioaren inguruan bizi direnak. Tiroi ekonomikoa suposatzen du, sektore siderometalurgiko arloan.

Beste esanahi garrantzitsu bat ere izan du: gaur egun ongizate gizarteko partaide diren elementuak daude: hezkuntza, osasuna, kultura... Orain dela bizpahiru ha-

markada arte, Estatuazpigaratuta zegoen eta ez zeukan elementu hauek asimilatze gaitasunik. CAF izan zen asumitu zuena. Langileen semeak formatzeko eskolak sortu zituen, parbularioa ere bazuen, ospitala, farmazia... Mende honen hasierako lehen hamarkadan farmazia ireki zenean, bere langileentzat ongizate eta garantia handia suposatzen zuten, inguruko herriek ez zutena. 1905ean Porteria sortu zenean langileentzako ongizaterik handiena zen. Porteriako etxeetan bizi zirenak, erdiguenean bizi zirenak baino bizi kalitate handiagoa zuten. Baina CAFeko nagusiek bazekiten langilea gustora, bizi maila onarekin edukitzea, mugimendu sindikalaren aurkako txertoa zela.

G.- Beasainek CAFentzat?

E.- CAFek ere Beasain behar izan du, beasaindarren eskulana behar izan du. Langile-



Liburua egiten ari zen bitartean Elenak egunero Txindoki ikusten gozatu egin du. Txikitako oroitzapen ugari etorri zaizkio burura.

ak espezializatuak, espezializatugabeak, profesionalak, tekniko kualifikatuak... herria eta lantokia elkarri begira egon izan dira beti, elkar zaintzen. Bata bestearekin izan dira beti.

G.- Momentu txar asko pasatu al ditu CAFek? Nola egin die aurre?

Oso momentu txarrak pasatu ditu CAFek berak eta CAF sortu aurreko enpresak ere. Beasainen biztanlego tasetan asko nabaritzen da. 1930eko hamarkada, Wall Streeteko boltsaren beherakadarekin sortu zen krisi garaia, oso

momentu txarra izan zen. 1.600 langile baino gehiago kaleratu zituzten. Emigrantei beraien herrietara itzultzeko txartela eman zitzaion.

Oso momentu zailak bizi izan ditu. Era honetako enpresa batek momentu zailak pasatzeak, herri osoak ere momentu zailak pasatuko ditu. Beasainek oso egoera

ekonomiko onak ezagutu ditu, eta baita txarrak ere. Beti CAFen menpe egon da.

Baina enpresako nagusiek beti jakin izan dute ausardi handiz, asko arriskatuz, egoera txarri aurre egiten. Enpresari izpiritua izan dute beti, etorkizunaren alde apustu eginez. Beti adore eta ausardi ikaragarriarekin.

G.- Zein izan da aurkitu duzun ezustetarik handiena?

E.- Trazendentzia ekonomikoaren eta giza trazendentziaren handitasuna. Bizkaiako eta Madrileko goi burgesiarekin harreman zuzenak izan zituzten. Bai lantokia, bai nagusiak, goi burgesia mailan egon ziren.

G.- Orain zein etorkizun ikusten diozu?

E.- Hori ez da nire lana. Baina izpiritu enpresarial horrek, ausardiak, berdin jarraitzen du. Oso izpiritu euskalduna da. Langileak, ausartak eta abenturazaleak dira. Euskaldunen bereizgarriak diren elementu horiek CAFen bizirik egon dira eta daude oraindik ere.

Loinaz Agirre

Sorrerako kontuak

Firma bezala 1917an sortu zen. Sorra honela laburbildu digu Elenak: Gipuzkoako burdinolek Erdi Aroko sistemarekin lana egiten zuten. XIX. mendean industria iraultzarekin, guztiz zahartuta gelditu ziren. Beasainen zeuden bi burdinolen nagusiek (Goitia eta Usabiagarenak), ausardiz, burdina beste teknika berriago batekin lantzea erabaki zuten. Hortik sortu zen San Martin Burdin Lantokia. Anbizio handiarekin hasi zen hasiera hasieratik, negozioa eta piskanaka kapitala pilatzen hasi zen. Goitia eta Usabiagaren ondasunetatik eta Aranek zituen lurretatik, lehenengo donostiar kapitalisten interesa piztu zuen, bizkaitarrena gero, madrildarrena eta azkenik frantziarrena. CAF sortu zenean frantziarren kapitala nagusi zen. Borrokatu egin behar izan zuten. Azkenean Urkijotarrek lantokia aurrera atera eta akzioak frantziarrei erostea lortu zuten.

San Martin jaiaak Ataunen

Azaroak 3, igandea: Haurren eguna

11:00etan: Ataungo Hiru Auzoetako XVII. Korrikaldia.

13:00etan: Kalejira trikitilari eta buruhandiekin.



14:00etan: Haurren bazkaria Joxemiel Barandiaran Eskolan. Ondoren jolasak eta jarraian Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak kiroldegian.

Azaroak 8, ostirala: kuadrilen eguna

12:00etan: Juntadizoa eta ondoren poteoa trikitilariekin.

14:00etan: Kuadrilen arteko bazkaria Victor jate-txean. (Txartelak aurrez erosi). Arratsaldez kuadrilen arteko jokoak.

22:30etan: Bertso saioa Auzoeta kiroldegian. A. Egaña, J. Sarasua, A.M. Peñagarikano, S. Lizaso, U. Iturriaga eta J. Munduate. Gai jartzailea: Jon Aizpurua.

24:00etan: Etzakit taldearekin dantzaldia.

Azaroak 9, larunbata:

12:00etan: Herriko preso eta errefuxiatuen aldeko zenbait ekintza Ezker Abertzaleak antolaturik: poteoa bertsolari eta txarangarekin, ondoren preso eta errefuxiatuen gurasoei omenaldia eta bazkaria plazan.

15:30etan: Mus txapelketarako izen ematea.

16:00etan: Mus txapelketa Aizkoate elkarte.

18:00etan: Pelota partiduak Auzoeta kiroldegian: Aldasoro-Aldasoro Dorronoro-Galarragaren aur-

ka; Garmendia-Ruiz Eneko Imaz-Galbetzuren aurka; Etxaniz-Sukia Olaizola II-Barriolaren aurka.

24:00etan: Triki-ta-ke taldearekin dantzaldia. Goizaldera txokolate jana eta matutina.

Oharra: Mozorro gaua izango da.

Azaroak 10, igandea:

12:00etan: Koxeguiy txarangarekin kalejira.

12:00etan: Toka txapelketa.

18:00etan: Jentilaren etorrera. Ondoren mondeju jana.

20:00etan: Nahiko orkestinarekin dantzaldia. Afalondoren ere dantzaldiak jarraituko du.

Azaroak 11, astelehena: San Martin eguna

11:00etan: Herriko txistulari eta trikitilariekin kalejira.

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren bertsolariak eta salda beroa Atsedan Toki elkarte.

14:00etan: Bazkaria Victor jate-txean. Bertsolariak bertan izango dira. 80 urte bete edo eta aurren beteko dituztenei omenaldia egingo zaie.

19:30etan: Zahar berri-tutako organoaren inaugurazioa Esteban Elizondoren eskutik.



Oharra: Jai hauetan Santi Iruretagoienaren pintura erakusketa izango da Udaletxeko ganbaran, ondorengo egun eta orduetan: ostirala 8, 18:00etatik 20:00etara; larunbata 9, 9:00etatik 11:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; igandea 10, 11:00etatik 13:30etara.

ERAUSKIN HARATEGIA

Mondeju beltzak, txorizoak eta bertako haragia

☎ 18 00 27 Helbarrena, 11
ATAUN

Agurtzane Hezapaindegia

Altzanipe, 2
Tfnoa.: 18 02 93
ATAUN (San Martin)

Victor

Jatetxea

*Ezkentzak
Jaunartzeak
Bataioak
Bazkari eta afariak*

☎ 18 00 33 - 18 00 84
ATAUN

BI URTE BAINO GEHIAGO ETA 22 MILIOITIK GORA BEHAR IZAN DITUZTE:

San Martin egunez inauguratuko dute elizako organo berritua

Bi urte baino gehiago behar izan du Kata-luniako 'Arrizabalaga Orgueners' enpresak San Martingo elizako organoa berritu eta txukuntzeko. Joan zen urriaren 18an bukatu zituzten lanak. Piezaz pieza askatu eta konpondu dute. Esaterako, organoak dituen 1.500 bat tuboak, banan-bana askatu, begiratu, konpondu, garbitu eta afinatu egin behar izan dituzte. Pimpiak jandako zura ere tratatu eta zenbait kasutan zati berriak jarri behar izan dizkiote. Lan handiena dena den, sekretua deituriko piezak eman die. Tuboetara haizea banatzen duen zatia da sekretua. Konponketa lanen ardura jaiotzez Markinakoa (Bizkaia) den eta Bartzelonan bizi den Joxe Mari Arrizabalagak izan du. Hauxe izan da organoak izan duen konponketa lanik garrantzitsuenak. Jesus Jaurregi bertako parrokoak adierazi digunez, 1979an zenbait berrikuntza egin zi-



tzaizkion, afinaketa kon-tuan batez ere. Baina orain bezala, barrura ez omen zi-ren sartu.

Aurrekontua 22 milioi-koa zuen. Zertxobait gora egin omen du, orde. Gastu guztiak Gipuzkoako Dipu-tazioak ordaindu ditu.

1761ekoa

Lorenzo Arrazola oñatiar-rak egin zuen organoa 1761ean. Gipuzkoan eta Euskal Herrian berezitasun hauek dituen organo gutxi gelditzen dira. Gainera, berrikuntza lan hauen ondo-

ren, datu garrantzitsu bat ar-gitu da: ustez barroko esti-loko organoa zena, klasikoa da.

Euskal Herrian berezie-nak diren organoak 4 dira: Bizkaiko Zenarruza Kole-giatakoa, 1686koa; Donos-tiako Santa Mariakoa (1863koa) eta Artzai Ona-koa (1954koa) eta Ataun-koa (1761ekoa).

Indar gehiago

Egin zaizkion berrikuntza lanen ondorioz, indar gehia-go du organoak On Jesus apaizak azpimarratu digu-

nez. Igandetako mezatan, Maixabel Martin, Agurtza-ne Auzmendi eta Izaskun Munduate organistek jotzen dute.

Inaugurazio egunean, Esteban Elizondo Donostia-ko Musika Kontserbatorio-ko organo irakasle eta kate-dratikoak kontzertua eskai-niko du. Gogoratu, San Martin egunez, arratsaldeko 7.30etan. Aurrera begira ere, kontzertu gehiago eta ikastaroak emateko asmoa dago.

Nork joko du?

Galdera hori egin digu Joxe Mari Arrizabalaga organo konpontzaileak. Kezkatuta azaldu da markinarra, orga-noa konpontzeko hainbeste diru gastatu eta berau jotze-ko musikaririk ez dagoela-ko. Horrekin batera, orga-noarekin jotzen ohiko musi-kaz gain, beste musika mo-ta bati ere lekua egin behar-ko omen litzaioke, Arriza-balagaren esanetan.



✓ Eguneroko menua: . . . 750 pzta.
✓ Karta, bataz beste: . . . 2.000 pzta
☎ 18 00 19 **ATAUN (S. Martin)**



ERROTAUNDI
OKINDEGIA
Elosegi, 2 ☎ 88 74 90 LAZKAO
S. Inazio, 17 ☎ 88 97 07 BEASAIN
Graziñeberri etxea ☎ 18 03 64 ATAUN

INAZIO GARMENDIA
Harategia

☎ 18 00 32
Dorronsoro-enea
ATAUN

AGAUTZ
TRIKITILARIAK

Bai jaunartze, sagardotegi edo edozein ospakizunetarako zuen zerbitzura.

Dei ezazu:
☎ 18 02 75 - 18 04 80 - **ATAUN**

SUKIA
HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin
ATAUN ☎ 18 03 45

JOSUNE
ARRAINDEGIA

☎ 18 03 67
Altzanipe
ATAUN (San Martin)

KARTZELATIK ATERA BERRIA DA JOXE MARI LIZARRAGA ATAUNDARRA 11 urte San Martingo festarik ikusi gabe

Joxe Mari Lizarraga ataundarra kalean da 11 urte t'erdi kartzelan pasa ondoren. 35 urte ditu, beraz, 23rekin izan zen kartzelaratua. Carabanchel, Alcala, Herrera, Cordoba, Sevilla, Tenerife eta Jaengo espetxeetan egon da, beti Madriletik behe-
ra. 11 urte hauetan gogorrena zer den galdetzean: "hau erantzutea oso zaila da, dena gogorra dela esango nuke. Zerbait berezia esatekotan, urruntasuna esango nuke", dio. Dispersioaz hitz egitean, beste euskal presorik gabe bakarrik egotea oso gogorra dela adierazi du.



**G.- Nola ikusten duzu preso-
soen hurbilketa?**

E.- Oraindik bide luzea da. Gobernuak ez du inongo as-
morik, azkenaldian sasi-
hurbilketa bat egin du, ima-
jin kanpaina hutsa da. Al-
derdi guztietatik presio han-
dia behar da hori lortzeko
baina ez dut batere erraza
ikusten. Agian pausoren bat
edo beste emango da, baina
hurbilketa eta batez ere
erreagrupamendua oso zail-
ak dira. PNV aritu zen dis-
persioa planifikatzen eta
orain arte ez da aurka egon,
alde baizik. PNVn bi alde
daude eta jarrera aldaketa
bat baino gehiago itxura al-
daketa bat izan da, kalean
egiten den borrokaren on-
dorioz.

G.- Egoera politikoa alda-

**tu al da 11
urte hauetan?**

E.- Aldaketak gehiago izan
dira formetan, sustraian
berdin dago. Hemen esku-
bide batzuk zapalduta
jarraitzen dute, ez digute
ezer ematen lehen bezalaxe
gaude. Hori bai, esperientzi
gehiago daukagu.

**G.- Zaila al da preso so-
zialekin elkarbizitzea?**

E.- Nik izan ditut lagunak,
baina askorekin ez dago fi-
datzerik. Pentsatu behar da
beraien hezkuntza maila ez
dela batere altua. Batzuk
hemengo arazoa ulertzen
dute, beste batzuk berriz,
gizartearen aurka duten go-
rrotoak eramaten dituzte
gure alde egotera. Baina,
gehienek ez dute gure ara-
zoa ulertzen.

**G.- Nolakoak izan ziren
askatasuneko lehen or-
duak?**

E.- Kalera atera behar nin-
tzela esan zidatenean ia ata-
ke batek eman zidan. Eguerdiko ordubiak aldera,
patiora joateko prest nengo-
ela, funtzionari bat etorri
eta esan zidan: gauzak pres-
tatu kalera zoaz eta. Hitzik
gabe geratu nintzen. Hiru
aldiz errepikatuarazi nion.
3etan patioan lagunak agur-
tu eta 4:30etan kalean nen-
goen. Ez inongo dokumen-
taziorik, diru gutxirekin...
Piska bat moztuta geratzen
zara haseran eta batez ere
urduri. Baina aguro hartu
nuen etxerako bidea.

**G.- Etxera etorri eta lehe-
nengo inpresioa?**

E.- Berdetasuna lehen lehe-

nik. Gero, aldaketa handie-
na errepideetan nabaritu
dut, barianteak. Bizpahiru
egun hauetan ez dut berri-
kuntza handirik nabaritu.
Aldaketa gazteetan izan da,
ongietorriak egin zizkidate-
nean, ez nuen inor ezagu-
tzen, nere adin ingurukoak
bai baina gazteak ez.

Ongietorriak inpresiona-
garriak izan ziren. Nik uste
dut urduriago nengoela Or-
dizian Ataunen baino, hain-
beste jende ez nuen inondik
inora espero.

**G.- San Martingo festak
ere gainean dira.**

E.- Ni inoiz ez naiz festaza-
lea izan, azaldu bai, baina
ez naiz oso zalea izan. Hori
bai aurtengoetan han ibiliko
naiz, kanpora joaten ez ba-
naiz behintzat.

**G.- Hainbeste denbora
giltzapean egonda, zaila
izango da bizitza normale-
ra ohitzea. Bitxikeriarik
ba al duzu?**

E.- Larraitzen garagardo
bat eskatu nuen. 20 durokoa
mostradorean utzi eta ko-
bratzeko esan nion taberna-
riari, 'hemendik ez zegok
asko kobratzerik' esan zi-
dan. Nik berriz 'nere garaie-
tan merkeagoak ziren gauza
hauek' erantzun nion eta ta-
bernariak berriz 'baita nere
garaietan ere'.

M. Albisu - A. Mujika



88 55 00 ORDIZIA



**ZUBIKOETA
GASOLINDEGIA**

- Gasolina, gasoila A eta C
- Autoaren garbiketa moeta guztiak

Zubikoeta Industrialdea

18 04 87

ATAUN

ARAMA

Herriko jaiak prest

Iritsi dira bai. San Martin eguna bertan dugu. Eta noski, San Martin inguratzearekin batera, herriko jaiak pil-pilean. Ostiralean, txupinazo eta herri afariarekin hasiko dira jaiak. Afarirako txartelak aurretik erosi beharko dira, Udaletxean bertan. Afalondoko giroa berotzeko, Laja eta Landakanda trikitilariak eta Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolari itsasondoarrak izango dira.

Larunbatean Mus txapelketa helduentzat eta haurrentzat txirrindu karre- ra izango da. Duela urte batzuk egin zen pare bat urtetan txirrindu karrera eta aurtan berreskuratu egin nahi izan da. Beste berrikuntza bat: haur jokoen orde- z, Txoronpio-Pantxi eta Pontxo pailazoak izango dira. Ondoren, Jon Mikel eta Ane herriko trikitilariak alaituko dute giroa. Aurtan ere hutsik egin gabe, Goza- tegitarrak ere izango dira.

Igandean, Agintarien Soka dantza dantzatzen saiatuko dira. Ordizian egi-



tekoak baziren ere, jaiak bertan behera geratu zire- nez, ez zen egin. Era hone- tan, San Martin bezperan eginez gero, Goierriko le- henengo herria izango li- tzateke ohitura hau berres- kuratzen.

Astelehenean ere izango da zertaz gozaturik. Egue- diko ordu batean, pala txapelketaren finala jokatu- ko da. Txapelketa honetan, 7 herriko bikote ari dira parte hartzen. Finalistak astebu- ruan erabakiko dira.

Egitaraua beraz, bete be- tea dator. Ondo pasa eta ho- beto ibili!

Azaroak 10, igandea

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Soka dantza.

13:00etan: Eskuzko pi- lota partidua.

18:00etan: Herri kiro- lak: ezkonduak ezkongabe- en aurka.

20:30etan: Gaztaina ja- na.

Ondoren, Triki-Beltz taldearekin erromeria.

Azaroak 8, ostirala

20:00etan: Txupinazoa.

20:30etan: Herri afaria.

Azaroak 9, larunbata

16:00etan: Mus txapel- keta.

16:30etan: Umeentzako txirrindu lasterketa.

18:00etan: Txoronpio, Pantxi eta Pontxo pailazo- ak. Ondoren herriko trikiti- lariak.

22:30etan: Etzakit tal- dea. Ondoren Gozategi tal- dearekin erromeria.

Azaroak 11:

San Martin eguna

10:00etan: Alegiko txistu- larekin goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Hamaiketako.

13:00etan: IV. Pala txapel- ketaren finala.

16:30etan: Toka txapelke- ta.

19:00etan: Izaro trikitila- riarekin erromeria.



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibare errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzekoak dira Apaiz etxea, Triarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herriar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.

IDIAZABAL

Duela 5 urte sortu zen Kinbela, astialdiko taldea. Tar-tean begirale edo monitore falta zela eta, geldirik egon zen eta orain ikasturte berriarekin batera herriko gazte batzuk taldea berriro mar-txan jartzea erabaki dute.

Aisialdiko talde hau, 7. 8. eta BBB, REM edo LH-ko lehen mailako gazteei begira dago antolatuta eta monito-reetako baten esanetan hel-buru bakarra du: Kristau ikasbidea bukatu eta Konfir-maziorako prestaketa hasi arte dagoen hutsunea betet-zea. Jolasaren eta beste hainbat ekintzaren bidez lor-tu nahi dute helburua.

Taldea larunbatetan bil-tzen da apaizetxeko lokale-tan. Herriko lau gazte ari-tzen dira bertan antolaketa lanetan: Eva Clavo, David Diego, Alaitz Katarain eta Iñaki Oiarbide.

Herriko odol emaileak

Andres Ajuria, Jesus Azur-mendi eta Isaias Contreras herritarrek 25 aldiz baino gehiagotan odola emateaga-tik saria jaso zuten aurreko asteburuan Ormaiztegin Goierriko odol emaileek egindako ospakizunean.

Hiru herritar hauez gain idiazabaldar ugarik ematen du odola urtero horretarako izaten diren hiru aukeretan. Aurten egin diren hiru odol emateetan 153 odol poltsa atera dira. 18 eta 60 urte bi-tarteko edonork eman deza-ke odola.

Egin Mus

Azaroaren 2an jokatu da Egin Mus txapelketa. Beti bezala, Mujika jatetxean, 16:00etan. Bikoteko 3.000 pezeta ordaindu beharko da.

Xabier Urteaga



Jesus Aranburu txapeldun

Herritarra izan zen bai herrian egin zen XIII. Euskal Herri-ko Gazta txapelketako irabazlea. 40 artzainek hartu zuten parte, finalera 15 gazta pasatu ziren. Denak ere kalitate oso onekoak.

“El sumun” izan da Ondramuñoko Jesus Aranbururen-tzat Euskal Herriko txapelketa irabaztea. Maiatza aldeko gazta aurkeztu zuen, ez fuertea ez suabea. Sekretua garbi-tasunean eta gazta mimatzean omen dago.

Idiazabalek izena bazuen lehenagotik, orain izana berreskuratu du. Ordiziako txapelketa Domingo Goiburuk irabazi zuen, Euskal Herriko Jesus Aranburuk. Aurten Idiazabalen urtea izan da. Goibururi omenaldia eskaini zion herriak. Idiazabal Jatorrizko Izenak ere herriari ome-naldia eskaini zion. Eta Artzai Gazta elkartekoak diren 70 urtetik gorako artzainak ere omenduak izan ziren.

ORMAIZTEGI

Patxi Elorza eta Maria Lasari omenaldia

Jubilatu Elkartek aurten ere beraien festa eguna antolatu du. Aurten azaroaren 17an izango dute gure herri-ko hirugarren adinekoek os-pakizunez beteriko eguna. Eguerdiko 12:00etan Meza Nagusia izango da, berau elkarteko kide izan ziren hildakoen alde eskainiko dute.

14:00etan Lierniko Muji-ka jatetxean bazkaria izan-go dute. Bazkalondoren ur-tero bezala elkarteko bi ki-deek elkartekoen eskutik omenaldi beroa jasoko dute. Aurtengoan Patxi Elorza eta Maria Lasa izango dira omenduak.



Iaz omenduak izan ziren Baltasar eta Kasilda oroigarriak jasotzen.

Patxi eta Mariak jaso de-zatela lerro hauetatik gai-nantzeko herritarren zorio-nik beroena. Urte askotan orain arte bezala osasuntsu jarrai dezatela opa diegu.

Bazkal ondoren eta giroa alaitzeko trikitilariak bertan izango dira.

Liernira joateko autobu-sa 13:45etan aterako da El-kartearen aurretik; itzulera,

berriz, arratsaldeko 6.30-etan izango da.

Egun horretan Jubilatuen Elkartek antolaturiko ekintzetan parte hartzeko gai ez den gaixoaren bat etxean izanez gero Batzor-dekoei adieraztea komeni dela adierazi digute.

Joan nahi duzuenok, be-rriz, izena azaroaren 5, 6 eta 7an eman dezakezue, eguerdiko 12.00etatik ordu batera eta arratsaldeko 6.00etatik 7.00ak bitartean, Elkartearen bertan.

Aitziber Murua

ZALDIBIA

M. K. Aginagalde eta Z. Goñi irabazleak

Urriaren 20an III. Ardiki Eguna egin zen eta ekintzarik garrantzitsuenak mondeju eta gazta lehiaketa ziren. Mari Kruz Aginagalde Zaldibian bizitzen ibarratarra izan zen mondejue-tan garaile. Bigarren postua, berriaz, iazko irabazleak eskuratu zuen: Rosario Armendarizek.

Bestalde, hirugarren saria Amezketako Luis Mari Goikoetxeak atera zuen. Luis Mari Goikoetxeak Tolosako "Hnos. Sukia" harategia eramaten du. 23 partaide izan ziren eta gehienak, epamahaiak esan zue-nez, oso onak.

Aralarko artzaientzako gazta lehiaketan Zezilio Goñi amezketarra izan zen lehena; bigarren saria ere Amezketara joan zen, Joxe Antonio Tolosak irabazi zuen. Hirugarren postua Joxe Mari Goikoetxea ataundarrak lortu zuen. Guztira 13 partaide izan ziren, eta guztiek ere, agidan- ez, oso gazta onak ekarri zituzten. Nola mondeju txapelketan hala gazta lehiaketan, sari hauek banatu ziren: 50.000 pezeta lehenengoari; 30.000 bigarrenari eta 20.000 hirugarrenari.

Herriar batzuekin batera, sukaldaritza-lanetan maisu handiak diren epaimahaiak ziren aurrekoan Zaldibian: Oiangui jatetxeko Juanito Rubio, Zepai jatetxeko Alejandro Izagirre, Tolosako "Casa Julián"eko Matias Gorrotxategi, "Venta del Curro" jatetxeko Manuel Ibañez, etab.



Beste ekintzen bat aipatzekotan, egun horretan Ordiziako Mendizaleak Elkar-teak antolatutako ibilaldi neurtua aipatu behar. Zaldibian zegoen kontrol bat, eta hara iritsi ziren 350 lagunei mondeju-pintxoak eman zitzaizkien. Ardiki Egunaren antolatzaileek Ordizian-

ko mendizaleei laguntza eskani nahi izan zieten, baina, aldi berean, plataforma polita suertatu zen ibilaldi hori Ardiki Egunaren berri hedatzeko.

Beste ekintza batzuk ere aipa daitezke: artzantzarekin erla-zionaturiko hainbat erakusketa, Zeberio, Sorozabal eta Begi-

ristain bertsolarien saioak, Agirre ahizpak trikitiarekin eta, batez ere, 200 bazkal-darretik gora bildu zituen lagunarteko bazkaria.

Mari Kruz Aginagaldek oso modu grafikoan azaldu zigun bere iritzia eta poza: "lehiaketan parte hartzen

duzunean, beti daukazu es-
perantza. Harria jaurtitzen
baduzu, baliteke harria txo-
riarengana ez joatea, baina
posible da txoria harriaren-
gana etortzea". Bestalde,
ez omen da parte hartzen
zuen lehen aldia. Nahiz eta
berez zaldibitarra ez izan,
hona etortzerako bazekien
mondejuen berri. Izenez
zein izanez ezberdinxeago-
ak diren arren, Ibarren ere
egiten dira mondejuak; han
tripotxak deitzen diete.

Soinketa ikastaroak

4 soinketa ikastaro mota an-
tolatu ditu Udalak: Aerobic,
Slow, mantenimendua eta
hirugarren adineko mante-
nimendua. Azaroaren 4an,
jarriko dira martxan. Klase
guztiak, soinketako gela ber-
rian izango dira. Ordute-
giak eta taldeak hauek izan-
go dira:

● **Aerobic:** Goizez, as-
tearte, asteazken eta ostira-
letan, 9.00etatik 10.00etara.
Arratsaldean 19:15etatik
20:15etara astelehen, aste-
arte eta ostegunetan eta
20:15etatik 21:15etara aste-
lehen asteazken eta ostira-
letan (Azaroan ostiraleko kla-
seak 21:00etatik 22:00etara
izango dira).

● **Slow:** 20:15etatik
21:15etara, astearte, oste-
gun eta ostiraletan (azaroan
ostiraleko klaseak 20:00eta-
tik 21:00etara izango dira).

● **Mantenimendua:** As-
tearte eta ostiraletan, 14:30-
etatik 15:30etara.

● **Hirugarren adineko
mantenimendua:** Astele-
hen eta ostiraletan, 9:30eta-
tik 10:30etara.

Rufino Iraola

Euskal Herriko historia

Euskal Herriko historia ezagutzeko hitzaldi sorta bat izango da azaroaren 5etik 21era bitartean. Hitzaldiak, Udalak Deustu-Donostiako Unibertsitateko Filosofi eta Letren Fakultateko Euskal Herriko Historia Sailaren laguntzarekin antolatu ditu. Hitzaldi guztiak Kultur Etxean izango dira, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7.30etan. Egunez eguneko gaia eta hizlariak hauek dira:

Azaroak 5, astearte: 'Gure lehen urratsak'. Hizlaria; Alvaro Arrizabalaga Arantzadi Zientzi Elkarteko Historiaurre Garaiko Arkeologoa.

Azaroak 7, osteguna: 'Erromatarren presentzia Euskal Herrian'. Hizlariak: Milagros Esteban Aintzinate Garaiko Historialaria, eta Xabier Alberdi, Historiako lizentziatua.

Azaroak 12, astearte: 'Euskal giza elkarten sorrera historikoa Erdi Aroko garaian'. Hizlariak: Elena Barrena Erdi Aro garaiko historialaria, eta Leire Arrieta Historiako lizen-
tziatua.

Azaroak 14, osteguna: 'Euskal Herria garai modernoan: bando gerratik Karlistadak arte'. Hizlariak: Jose Angel Achon, Aro Berri Garaiko historialaria eta David Zapirain Historiako lizentziatua.

Azaroak 19, astearte: 'Euskal Herria XX. mendean'. Hizlaria: Joseba Goñi Garaikideko historialaria.

Azaroak 21, osteguna: 'Espainia-Euskadi: Gatazka baten klabe historikoa'. Hizlaria: Jose Antonio Rodriguez, Garai-
kideko historialaria.

ZEGAMA

Aizkorriko parke naturala

Urriaren 24an, Aizkorriko Parke Naturalari buruz 2. bileraren egin zen Kultur Etxean, Batzorde Informatzaileak antolatutik.

Lehen bileran, Iñaki Aizpuru, Foru Aldunduko teknikaria izan zen eta azkeneko honetan EHNEko langile bat, ENBAko Lehendakaria, eta Basozainen Elkarteko lehendakaria izan ziren hizlari.

Besteak beste, Aralarko Parke Naturalaren eta Aialarko Hiruarrieta Parkeetan emandako prozesuen berri eman zen eta bertan izan zituzten arazo eta kezka ere agertu zituzten hizlariak.



Aizkorriko Parke Naturalari dagokionez, Aizkorriko Errekurtso Naturalen Antolamenduaren Egitasmoa oraindik zirriborroan omen dago; hala ere, bilera horretan agertu zen kezkarik nagusia herriarrok, bai nekazari, abeltzain, artzain, ehiztari, lur partikularren jabe eta bai Partzoneroak zirriborro horren osaketan parte hartzeko dugun es-

kubidea aipatzen zen, ez zelarik bidetza ikusten Parke Naturala izendatu ondoren, kaltetuak sentitzen zirenak iradokizun edo alegazioak egiteko aukera bakarrik izatea.

Hori horrela izan dadin, guztion interesen oreka aurkitzeak zuen garrantzia azpimarratu zen eta batez ere, Administrazioaren aurrean parte hartze konstruktibo bat egiteak, Aizkorri Parke Naturala, guk nahi ala ez, izendatua izango baita.

Dagoen beste kezka nagusienetakoa bat zera hatzeman zen: Partzoneroen Juntak orainarte izan duen ges-

tiorako autonomia, nola geratuko den Parke Natural horren barnean, Partzuergoko eskubideak ditugun herriarrok, aurrerantzean berdin izango ditugun ala ez, mugak jartzen badira zeintzuk izango diren, edo 25.000 hektarea izango dituen Parke Natural erraldoiak irentsiko dizkigun gure arbasoek erositako lur horiekiko eskubideak.

Informazio-batzordeak lanean jarraitzeko asmoa agertu zuen, beraien helburua ahal den informazio gehien lortzea delarik, herriarrok beste zenbait hitzaldi antolatze asmoa agertu zuen: Mendi Federazio, Ekologista, Urzainki, eta abar ekarrit.

Eduarne Albizu

ORDIZIA

Feri-gune berriarekin tirabiran

Zeresan asko ekarriko duen gaia izango dela ez du inork zalantzan jartzen. Hala ere parte interesatu gehiegi daude eta bakoitzak bere aldeko jarrera du. Hain zuzen ere "Feri-gune berria" izango denaz ari gara, aurreko ale batean adierazi genizuen bezala. Udalaren aldetik merkatal gune handien aldeko apostua egiten duten aldetik, Ordiziako merkataritza txikiak hor daude etorkizuna kolokan dutela.

Ez dakigu oraindik proiektua aurrera eramango den ala ez, baina ziur Ordizian ez bada egiten beste inguruko lekuren batean egingo dela eta orduan, gurea bezalakoa den zerbitzu-herri batentzat kaltegarri litzateke.

Kokalekuaren arazoa ere

hor dago, San Bartolome auzunean, egun estreinatu berria den Trebijano rugby-zelaia hartuz. Hauek ere, rugby jokalaritza eta teknikoak, seguro zeresanik izango dutela. Eroski ere hor dago, txiki geratu dela eta beste handiago bat egiteko asmoz. Hau ere ikusiko da etorkizunean, Prycak erosi berria baitu Olaberriako merkatal zentru handia eta ziur honek ere kompetentzia ekarriko diola Eroskiri.

Proiektua aurkeztu zenetik denbora pasa da eta gauzak bare-bare daudela diruditen arren gauzak ez dira horrela. Hor dago adibide gisa Juan Urbano Jauregi 'Ordizian' merkataritza elkarteko zuzendariak urriaren 24ean DVn argitaratutako eskutitza. Bertan irakur daitekeenez

Urbano jauna harridura agertzen da herriko alkatea denak, Juanbi Erauskinek, egindako deklarazio batzuen ondoren. Alkatearen arabera, eta beti ere 'Ordizian'eko zuzendariak idatzitakoa kontutan hartuz, etorkizuna merkataritza ertain eta handietan oinarrituko da. Urbanoren erantzuna borobila, aspaldiko urtetan merkataritza autonomoen beherakada eman bada ere, Ordizian tinko mantendu direla. Merkataritza zentru handiak bultzatuz bakarrik zer lortu nahi dute udalaren aldetik, Frantziaren gisa herriak hutsik eta triste geratzea, ala zer? Urbanok alkateari zuzendutako galdera.

Guzti honez gain koka-gunea proposa izango ez denaren usteak ere hor daude oraindik zintzilik, ibaia eta

trenbidea uste den baina oztopo handiagoak baitira, herri-gunea eta ustezko ferigune berri honen artean daudenak orain, hain zuzen.

Gauza asko ekarriko ditu gai honek oraindik eta gauzak gerta ahala azaltzen saiatuko gara, alderdi guztien iritzia jasoz.

Majoriren oharra

Udaletxean herriarrek egingako hainbat eskariren ondoren, Majori Kiroldegiak bere ordutegia zabaltzea erabaki du. Hemendik aurrera goizeko 7retatik aurrera irekita egongo da astelehenetik ostiralera bitartean. Gainontzeko ordutegiak orain arte bezala jarraituko dute.

Aitor Calvillo

LAZKAO

Aspaldiko ohiturak berreskuratuz, Lazkaomendiko Iztueta Garaikoa baserrian sagardoa egin dute aurten. Esan beharrik ez dago sagardotegiek azken urte hauetan arrakasta ikaragarria izan dutela eta dutela egun ere. Normala denez, sagardotegietan bertan egiten da sagardorik gehien, Goierriko parte honetan. Lehen baserri gehienek izaten zuten dolarea, eta sagastiak ere askoz ugariagoak ziren; beraz, sagardoa ere txoko gehienetan egiten zen.

Baserrien berritzearekin, ordea, gauzak pixkanaka aldatzen hasi ziren. Dolareen orde ez beste motako eraikinak egin zituzten; sagastiak, berriz, larretoki bihurtu ziren gehienak. Ondorioz, sagardoa egiteko ohitura galtzen joan zen, eta leku jakin batzuetan mantendu zen soilik.

Iztueta Garaikoa da dolarea mantendu duen baserri gutxitako bat. Sagardoa egin dute aurten, eta honetarako Iztueta Berriko bizilagunek



inguruan duten sagasti berriaz baliatu dira.

Dolarea azken urte hauetan (6-8 urte, dagoeneko) geldirik egon da, kupelek eta gainerako tresnek zainketa berezia eskatzen zuten-eta. Aurten, ordea, sagardoa egitea erabaki dute eta gogobetetz aritu dira lanean. Sagardoa nola egin zuten, Iztueta Garaikoako Euxebio Garmendiak adirazi digu.

Lehenengo lana, sagarra biltzeak ematen du. Honen ondoren sagarra 15 bat egunez biguntzen utzi behar da zuku edo zumo egokia eman

dezan. Hurrengo pausoa sagarra txikitzea izaten da, eta honetarako tresna berezi bat erabiltzen da. Txikitutako sagarra, azkenik, dolarrera bertara pasatzen da, daukan zuku guztia ateratzeko. Zuku hori kupeletan gordetzen da eta hantxe uzten da fermentatzeko. Kupelean egoten den denbora egiten du gainontzekoa.

Beraz, garai batean baserri gehienetan egiten zena, egun sagardotegietara eta baserri bakan batzuetara mugatzen da. Lerro hauetatik Iztueta Berri eta Iztueta Garaikoa baserrietako denak sagardoa egiten jarraitzen animatu nahi ditugu, nork edana erraz aurkituko dute-eta!

Munduko dantzen ikastaroa

Iraileko eta urriko hilabeteetan Ikastola ondotik arratsaldeko 3etatik 4etara pasa zareten askori, harridura aurpegia jarriko zitzaizuen agian, Maizpideko ikasle zenbait mugimendu xelebre-

ak egiten ikustean. Ez pentsa, ordea, eraldiren bat izan dutenik! Dantza-ikastaro berezi bateko partaide besterik ez dira. Ideia Kontxi Roldan Maizpideko ikaslearena da. Berak lehendik hainbat eta hainbat ikastaro eginak zituen munduko dantza ezberdinen inguruan. Beste ikasleekin harremanak sakontzeko eta une atsegin bat igarotzeko modua izan zitekeela pentsatu zuen. Arrakasta handia izan du ikastaro honek, ia 50 ikasle hurbildu baita Ikastolara gorputza mugitzera.

Kontxik dantza herrikoiak erakusten ditu soilik, dantza errazak, gainera; hala nola, Grezia, Jugoslavia, Eskozia, Errusia, Hungaria, Israel eta Euskal Herriko dantzak.

Halere bada kexatzeko arrazoirik: mutilak ez omen dira behar hainbat animatzen dantza egitera! Azaroan ikastaroa errepikatzen bada, hor daukagu aukera ederra bakoitzak bere abileziak erakusteko.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

MGUAR

MONTAIA ELEKTRIKOAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
BERRIKUNTZAK OROKORREAN

Berehala zabalik

Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580 / 908-000831

ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24
☎ 88 95 83

LAZKAO

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

EROSKI

KAFATEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

SEGURA

Baserriko produktoak autoenplegurako



Kirol eskolarraren barne, Laiotz Herri Eskolakoak denboraldiko lehenengo mendi irteera egin zuten urriaren 20an Irimo mendira.

*Baserriko oilaskoak

Berez baserriko lana gustatuta eta gainera albaiaria izanik, Aldaolako Anaje Alda-nondok urriaren 7tik dauka martxan baserriko oilaskoen produkzioa bere baserrian. 100 metro karratuko 2 erakuntzatan eta 2.000 metro karratuko zelaian, 2.000 oilasko ditu libre. Hauek, Frantziatik, Landetatik ekartzen dizkiote egun bat besterik ez dutela. Tenperatura egokian edukiz, azpia txirbiz lehor mantenduz, egoki elikatuz eta garbitasuna zainduz, 11 astetan prest egongo dira Zeraingo oilasko hiltegi-ramateko. Anajek, Zeraingo "Lumagorri" elkarteko kidea izanik, baserriko oilaskoen komertzializazioa bideratua du. 15 egunez oilaskotegiak saneatuta, 11 aste prozesua hasiko da berriro.

*Baserriko ogia

Aldataerdiko Iñaki Izagirre, berriz, abendutik da baserriko ogia egiten hastekoa. Amonari eta amari ikasita, ogitara herrira jaisteak ematen zuen endredoagatik, berak egin izan du etxerako ogia azken 15 urte hauetan. Betiko labea konpondu beharra zegoela eta, hau bertan utzita, berria egitea pentsatu dute. Honek, etxeko kontsumorako baino gehiago egite-

ko aukera emango dio. Gainera orain, ogia oratu, forma eman etab., dena bertan egiteko aukera izanik, bakarrik ere molda daiteke. Labe berriak, aldiko 35en bat ogi egiteko aukera ematen dio; hori bai, etxeko egurrekin egingo du sua eta ogia aditiborik gabea izango da.

Haurrentzako zinea

Udalak milioia inguru kostatzen bideproiektorea erosi ondoren, "Haitz lehor" ikasleen guraso elkartek antolatuta, azaroaren 10ean da hastekoa Kultur Etxean, jai arratsaldeetako zinea neska-mutikoentzat. Zine antolaketarako 48 gurasok eman dute izena. Pasa den urriaren 25ean izandako bileran, hainbat puntu zehaztu zituzten: bi emanaldi izango dira

jaiero, 16:00etan 7 urte artekoentzat eta 17:30etan 7tik gorakoentzat. Bakoitzari 25 pezeta kobratuko zaio. Zeraingo, Mutiloa eta bertako haurren senide eta lagunak ere joan ahal izango dira. Jaiero txandaka, 3 guraso arduratuko dira antolaketaz, garbiketaz eta proiektoreaz. Asteroko pelikulen aukeraketarako eta hauek iragartzeko, berriz, 5 laguneko guraso taldeetara osatu da.

Santu Guztiak

Santu Guztien egunean, aurrez errosarioa izanda, 17:00etan emango da meza kanposantuan. Azaroaren 2an, Arimen egunean ere, irekita egongo da hilerria. Gainerakoan, bertara joan nahi izanez gero, zapatu, jai eta jai bezpera guztietan egoten da zabalik.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

Infantilak: Elgoibar 1 - 0 Aizkorri. **Kadeteak:** Aizkorri 3 - 0 Munibe. **Jubenilak:** Segura 3 - 1 Mundaiz. **Erre-jionalak:** Baskonia 3 - 0 Segura.

Asteburuan etxean:

Infantilak: Aizkorri - Añorga. **Kadeteak:** Aizkorri - Koskas. **Erre-jionalak:** Segura - Euskalduna

Labur labur

***Gaztaina denboraldia:** Imazenean lehenago hasi badira ere, Atsedenen Santu Guztienetatik aurrera dira gaztainak erretzen hastekoak. Antonkalenen, berriz, labean erreta, egun hauetako batean.

***Urriaren 22an izan genuen Seguran, militarren "bixita".** Ellor aldetik azaldu ziren, handik zuzen, zelai guztiak zapalduz, Itturberritik futbol zelaira igota, aurpegiak pintatuta eta armak eskuetan zituztela formatzen aritu ziren, ondoren herriko kaleetatik pasatuz alde egiteko.

***Urriaren 25ean Elorripen jokatu zen VII Egin mus txapelketan,** Pako Arrondo-Joxe Otegi eta Joseba Etxeberria-Eñaut Telleria sailkatu ziren azaroaren 3an Hernanin izango den Gipuzkoako kanporaketarako.

***Jesus R. Jauregi** eskultore eta pintoreak, azaroaren 1etik 10era Madrilgo "Feria de la estampa"n eta azaroaren 29tik abenduaren 3ra, Belgikan, Ganteko nazioarteko gaur egungo arte azokan, bere zenbait lanen erakusketa jarriko du. Bietan, euskal akelarrea gai duten zuri-beltzean irudikatutako 20 grabatu erakutsiko ditu.

***Orain arte Zegamako Musika Eskola** izan denak, azaroaren 4an sinatuko diren estatutoen ondoren, **Ttakun Musika Eskola** izenez, eskualdeko Musika Eskola bezala funtzionatuko du. Zuzendaritza Zegaman izanda, Zegaman bertan, Seguran eta Zerainen izango dira musika zentroak.

Joseba Telleria



Urriaren 26an jende ugari inguratu zen Segurara 'Euskal presoak Euskal Herrira' egunera. Baratze pelotalekuan izan zen afarian 400 lagun bildu ziren.

OLABERRIA

Santu Guztien egunez gaztaina jana

Azaroaren leian, hau da, Santu Guztien egunean ospatuko da ohizko gaztaina jana. Baina ospakizun horren aurretik urriaren 12an argazki lehiaketan ateratako argazkien emanaldia eta sariketa izango da. Argazki lehiaketa honetan 25 pertsonen parte hartu zuten, horietatik hiru herrikoak. Argazkilariak 6 gaien inguruan atera behar izan zituzten argazkiak: Olaberria Goierriko balkoia, lurre auzoa, olaberritarren erretratua, baserri eta ingurune txukunena, ibai eta errakastoak eta azkenik gai librea. Argazkien emanaldia eta sariketa Kultur Etxean izango da arratsaldeko 6.00etan, ondoren gaztaina jana izango da frontoian. Urteroko gaztaina jan hau Guraso Elkartek eta Udalak antolatzen dute.

Ohizko bilkura

Urriaren 24an Ohizko Bilkura izan zen Udaletxean, besteak beste gai hauetaz mintzatu ziren alkatea eta zinegotziak:

- Gaur egun Udaletxe azpian dagoen Ostatu taberna Zezilio-Enea etxean eraiki-

ko da. Tabernaren gainean aterpe bat eraiki nahi da logela batzuekin eta beste solairu batean jabearentzako bizitokia eraikiko da. Berrikuntza hauek egin ondoren udaletxea berrituko da.

- Herritarrok ordaintzen ditugun udal zergak ez dira igoko.

- Garraio publikoa duen auzo bakarra lurre auzoa da, baina baliteke hurrengo urtean beste auzoek garraio hau izatea, izan ere Gaiara eta Etxabe autobus garraioak elkartzekotan dira.

- Arkurutza hilarriaren ingurunea berrindartu nahi da. Hilarri hau Urbarandi mendian dago, Amoskategi baserritik kilometro batera eta hutsik aurkitzen den Barandiaran baserritik gertu.

- Udalak Euskaldunon Egunkariako sei akzio erosi ditu, bakoitza 25.000 pezetako balioarekin.

Gimnasialekua

Zaharren Egoitza ondoan dagoen gimnasialekuaren erabilpena arautu du Udalak, izan ere areto hau udalarena da. Gimnasialekura

sartzeko eskubidea edozein olaberritarrek dauka, beste herrietako biztanleak olaberritar batekin sartu ahal izango dira. Hala ere, beste herriren bateko biztanleak bakarrik sartutzeko, udalaren Kirol-batzordeari eskatu beharko zaio onarpena.

Gimnasialekua, goizez Zaharren Egoitzak antolatutako kirol ekintzetarako erabiliko da. 15.00etatik gaueko 21:00etara herritarrentzat egongo da irekia gimnasialekua. Hala ere Kirol-batzordeak antolatutako ikastaroak lehentasuna izango dute. Urteko bonoa 3.000 pezetako da eta erabilera puntualetan egin nahi izanez gero, orduak 300 pezetako balioa du.

6 haur eskolan

Gipuzkoako Bazkundearen datuen arabera iaz ikasle gutxienez zeukan Gipuzkoako herria Olaberria zen. Lehenengo urteko ikasturtean 6 haurrek ikasi zuten eta aurrean ere kopuru berbera mantentzen da. Herriko eskolaren inguruan informazio gehiago izango duzue "Zeba?" aldizkariaren abenduko alean.



Bolatokiko paretak

Jokin Telleria beasaindar margolari Bolatokiko paretak margotzen ari da. Urteen igarobidea ageri da bertan. Paretaren alde batean baserriaren bizimodua ageri da, baserriarrak egurra jaso eta zerratokian landuko da. Hurrengo pausoa olatokia ageri da eta azkenik hainbat herriko-kirol margotu du Jokin, herri kirolak azken finean gure aintzinako bizimodutik baitatoz. Bolariaren aurpegia herriko bolari batena da. Ezagutzen al duzue?

Nagore Goiburua



LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

- 4 logela, beren bainugelekin
- Gosari, bazkari eta afariak

☎ 88 00 44

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23

LAZKAO

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543

BEASAIN



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfn. 65 29 01

18
HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa

BEASAIN

Igartza jardunaldi irikiak

Urriaren 19an iriki zituzten herritarrentzat Igartza jauregiko atea. Aurtengo udan auzolandegiko gazte-ek egindako berrikuntza lanak ikus ahal izan ziren. Igartzako jauregia arkeologiaren bidez ikertzen ari da, bere eraikuntzan dauden garai ezberdinetako elementuak aztertuz. Egu- rrezko egitura aipagarria da, Euskal Herriko onenetakoa.

Fatxada nagusia eta ibai aldekoa berriro dira. Dato- zen urteetan, beste bi fatxa- dak eta barrualdea konpon- tzeko asmoa dago. Jaure- giari egin zaion azken berri- kuntza, argiztapenarena izan da.

Dena den, hona hemen Igartzaren kronologia histo- rikoa:

- XIV. mendean Igartza leinuaren sorrera.

- 1399. urtean, Beasain Ordiziako hiribilduarekin batzen da.

- 1409. urtean Igartzako jauntxoak inguruak errotak erosten ditu.

- 1457. urtean Gaztelako Enrike IV eta Gipuzkoako Hermandadeak Igartzako dorretxea apurtu zuten.

- 1500. urtean Igartzako jabegoaren barruan ondoko- ak aipatzen dira: Igartzako



jauregia, hiru harriko errota, Igartzako burniola, Dola- rea-tolarearen etxea, Usate- gi baserria (desagertuta), Errementari etxea, Zapatari etxea (desagertuta), Agirre- zabal baserria, etab.

- 1616. urtean Beasaingo herriak 'villazgoa' lortu zuen eta Ordiziatik sakaba- natu zen.

- 1982. urtean Igartzak oria ibaian zuen ur presa apurtu zen.

- 1994-1996. urteetan ze- har gaztea auzolandegiak.

- 1994. urtean Eusko Jaurlari- tzak Igartza multzoa Santio bideko 'Conjun- to Monumental' izendatu zuen.

Xakea

Azaroaren 9tik aurrera, larunba- tero, xake klase ludikoak eman- go dira gaztetxoentzat, 11:00etatik aurrera, Alfil Xakelari elkartean.

Egin Mus

Azaroaren 2an, arratsaldeko 4etan hasita, Egin Mus txapelketa jokatu- ko da, Loinatx Tabernan eta Arriaran- go Intxaurrondo elkartean. 4 erregeetara jokatu- ko da eta bikoteak 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Ira- bazlea Gipuzkoa mailako txapelketarako txartela lor- tuko du.

Finalista eguna

1996ko denboraldiaren amaiera ospatzeko Aitzgorri Men- dizale Elkartek jaia ospatu- ko du Garin auzoan. Bertara Beasaindik oinez abiatu- ko dira azaroaren 3an, Murumendi igo eta hamaiketako egin ondoren Garinera jaitsiko dira. Eguerdiko ordu batean meza izango da hildako mendizale guztien oroimenez eta ondoren denboraldi honetan irtere- tan parte hartu dutenentzat dominak eta opariak banatu- ko dira. Bazkari herrikoia- ren ondoren zenbait joku egingo di- ra. Musika, dantza eta jai giroa izango da Garinen nagusi. Bertako ekitaldi guztiak amaitu ondoren autobusez herrira itzuliko dira eta elkartean txokolate jana egingo dute. Ne- gu aldean etena egin ondoren, ihauterietan berriro ere irte- erak hasiko dira.

Ipuin lehiaketa

VII. Beasain Idazlan lehia- ketako oinarriak kaleratu dira. Idazlanak abenduaren 16rako aurkeztu behar dira Udaletxeko Euskara Zerbi- tzuan. Oinarriak datorren alean emango ditugu, beste- la Udaletxean bertan eskura dituzu.

Udazken kulturala

Aurrera jarraitzen du bai Udazken kulturalak. Orain- dik ere hainbat ekitaldi gel- ditzen dira egitarauan: To- losako abesbatzen txapelke- tako partehartzaileen kon- tzturtua, Aurtzaka dantza taldearen 'Dantza berriak, doinu berriei jarriak' ikus- kizuna, Txistulari eguna, Maixa eta Itziar eta abar.

Orain artean zenbait egindako lehiaketen emai- tzak hauek dira:

Pintura lehiaketa: Hel- duetan Ermuako Jon Idigo- rasek irabazi zuen; gaztee- tan Arrasateko Eluska Za- balok; herriko helduetan Iñigo Fernandezek; eta he- rriko gazteetan Maitane Pe- jenautek.

Errezil sagarrik onenak Lazkaoko Altune baserriko Maria Jesus Mujikak aur- keztu zituen.

Postu dotereena, berri- z, Gabiriako Maria Etchezar- retak jarri zuen.

Izaskun Salazar



GALDOS

- Egurrezko zoruak
- Moketak
- Sintasolak
- Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89

BEASAIN








Aterki eta poltsak, bidaietako artikuluak, konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2

Errementari, 5

BEASAIN ☎ 16 09 65

TOLOSA ☎ 67 41 43

MIKEL SARRIEGI, 'DANTZA BERRIAK, DOINU BERRIEI JARRIAK'-EN KOREOGRAFOA:

"Euskal dantzekin gauza politak egin daitezkeela erakutsi nahi dugu"

Dantza berriak, doinu berriei jarriak'

ikuskizuna aurkeztuko dute Beasaingo Aurtzaka eta Ordiziako Jakintza dantza taldeek bihar gauean, Usurbe Antzokian, 23:00etan. Dantza tradizionaletik atera eta "euskal dantzen munduan gauza politak egin daitezkeela erakutsi" nahi dute.

Mikel Sarriegi beasaindar dantzariak moldatu du koreografia. Berak kontatu dizkigu xehetasunak.

Dantza herrikoitik atera egiten da. Mikel Sarriegik gustoko zituen musika eta doinuak hartu, eta euskal dantzen pasoen bidez doinu eta musika horien interpretazioa egin du. "Musika bakoitzak sortzen zizkidan sentsazioekin piska bat jokatuz egin dut koreografia. Musika horren esanahia edo giroa ere kontutan hartu dut", dio Mikelek.

Momentu honetan euskal dantza desprestigiatuta dagoela dio beasaindarrak. Era honetan, "euskal dantzen munduan gauza politak egin daitezkeela demostratu nahi dugu", gaineratu du.

Pello Joxepe, Kontxesiri, Dantza con noivos, Muruko Mari, Talamanttuna, Sagarondo bati sehaska kanta, Lili bat eta Le Basque doinuak aukeratu dituzte. "Dantza bakoitzaren barruan errespetatu da euskal dantzak koherentziz jartzea. Hau da, dantza berean ez di-



Mikel Sarriegik egokitu du koreografia.

ra estilo ezberdinetako pasoa nahastu. Gipuzkoako pasoa Iparraldeko ihaute-rietakoekin ez nahasten saiatu gara", zehaztu du.

Plazatik antzokira

Herriko plazatik Antzokira joan dira gainera. "Dantza tradizionalaren ikuskizunak egiteko espazioa herriko plaza edo kalea izaten da.

Dantza tradizionaletik irten nahi duzun momentutik, antzokia oso ondo egokitzen da. Plaza batek ez dauka baldintzarik sonordade eta argiztapen aldetik. Baldintza minimo batzuk behar dira estetikoki zerbait kalitatezkoa egin nahi bada. Beasaingo antzokia aprobetxatu da, kalitate tekniko nahiko onak baititu".

Dantza eskola

Euskal dantzak desprestigiatuta daudela esan digu Mikel sarriegik elkarrizketan zehar. Ikuskizun berritzaile honi ez dio etorkizun handiegirik ikusten, herri mailako gauza puntual bezala ikusten du.

G.- Zein etorkizun ikusten diozu dantzari, Mikel?

E.- Irakaskuntzan edo dantza eskoletan dago kakea. Arautzen ez den bitartean nahiko lan izango. Batetik irakasle kualifikatuak eskatzen ditu; bestetik taldearen kalitate maila minimo bat garantizatzen da eta jarraipen minimo bat.

G.- Gero eta dantzari bikote gehiago daude.

E.- Dantza sueltoko kontua nahiko araututa dagoelako, bere eskolak daude, forma hori ari da hartzen.

G.- Hurrengo pausua Beasainen dantza eskolaren bat sortzea izango al da?

E.- Beasain mailan baino gehiago, eskualde mailan planteatu beharko litzateke. Etorkizun bat ziurtatu nahi bada, nire ustez beharrezkoa da. Musika eskola dagoen bezala, dantza eskola.

Pello Joxepe eta Kontxesiri doinuak zuzenean joko dituzte Aitor Furundarenak eta Xabier Sarasolak. Gainerakoak, grabazioak izango dira.

Betiko gogoa

Duela urtebete planteatu zioten Udalari honelako gauza bat egiteko proposamena. Ideia nondik sortu den galdetzean zera erantzun digu. "Edozein dantzarik eduki dezakeen gogoa da. Dantzatan beti dago osagarri bat norberak aportatzen duena. Musika hau hain polita izanda, zergatik mugatu behar dut beti txistu eta danbolinarekin dantza egitera. Dantza taldea gainera momentu onean dago, zerbait egiteko gogoa zegoen eta ausartu egin gara ikuskizun hau prestatzera", dio Mikelek.

Beasaingo Aurtzaka eta Ordiziako Jakintza dantza taldeek elkarlanean prestatu dute ikuskizuna. "Nesken aldetik hobeto gabiltza baina mutilen aldetik plantila oso motza da. Bi talde hauek elkartzek aukera gehiago ematen du. Zerbait dextentea egin nahi bada beharrezkoa da elkartzea", zehaztu du. Guztira 30 bat dantzarik hartuko dute parte.

Dantzarietz gain, ordea, bada beste protagonistarik. Argiztapena Iñaki Irastorza-ren esku egongo da; soinua Aitor Aldasororen esku eta txalaparta Igor eta Zadorrek joko dute.

Loinaz Agirre

Euskal Herriko 3. mailako aizkolari txapelketa azaroaren 1ean Zaldibiko pelotalekuan



Axier Mujika, Iñaki Azurmendi eta Iñaki Aierbek lan txukuna egin nahi dute Euskal Herriko txapelketan.

Ostiralean arratsaldeko 6etan Zaldibiko pelotalekuan 24 gazte arituko dira aizkora. Egin beharreko lana pinu egurrezko 4 enbor 54"-koak moztea izango da. Euskal Herriko 3. mailako aizkolari txapelketako kanporaketa da. Lehenengo 6ak oraindik zehaztu gabeko egun batean Zaldibian bertan finala jokatuko dute, orduan pago egurrezko 5 enbor (3 enbor 54"-koak eta 2 enbor 60"-koak) izango dituzte. 24 gazteetatik 3 arabarrak dira, 5 bizkaitarrak, 6 nafarrak eta 10 gipuzkoarrak; hauetatik 3 goierritarrak.

Aizkolari txapelketa 3 mailatan banatuta dago, 1. goan 12 aizkolari daude, 2. ean 14 eta 3. ean nahi duten guztiak. Maila bakoitzetik lehengo 2ak igo egiten dira eta azken 2ak berriz mailaz jaitsi.

Txapelketa hau irailaren haseran zen jokatzekoa baina egurrak, adarrak bistan zituztela, oso txarrak zirenez aizkolariek ez zuten parte hartu nahi izan. Orduan bertan behera uztea erabaki ba-

zen ere, azkenean Zaldibian jokatuko da. Luzatze hau dela eta; sasoi eskaseagoan iritsi direla diote 3 goierritarrek. Sailkapena pinuarekin izatea berriz denen gustokoa da. Axier pinuarekin ohituta badago ere, Azurmendik nahiago du pagoa gogorra goa delako eta frogatu luzeagoa, auspoz ondo ibiltzen delako. Aierbe berriz, kamioikada bat pago erosi eta hartan bakarrik entrenatu da, pinuarekin ez du batere entrenatu.

Aizkolarien arazoa entrenatzeko materialaren kostua da. Exibizioetan ateratako diruari esker erosi dezakete egurra. Aurten Azurmendik exhibizio asko egin dituenek, ondo ibili da materiala erosteko, besteek berriz lan gehiago izan dute. Asteaz 2-3 egunetan aizkora egiteaz gain korrika ere egiten dute sasoiaren egoteko.

Dexente gazte baldin badabil ere, ez dute lehenengo mailan dabiltzanen mailara iristeko modukorik ikusten. Hainbaten artean bakarren bat atera baliteke ere.

Mikel Albisu

Axier Mujika

27 urte, Olaberriako Ertzille baserrikoa, 1'79 metroko altuera eta 90 kiloko pisua. CAFen elektrizista.

Herri mailan festatan giroa jartzearen herri kirolak egiten hasi zen. Lehenik trontzan aritzen zen, baina aizkolaririk gabe pobrea geratzen zela eta aizkora prestatzeko hasi zen duela 5 bat urte. Handik 2 urtetara txapelketetan hasi zen. Hasieran aitak lagundu zion eta piska bat gogortu arte bakarrik aritu zen. Gero Ataungo Pellok lagundu dio.

"Euskal Herriko txapelketan lan handia ez zela eta zer maila genuen ikustera joan eta finalerako sailkatu ginen. Honekin animatu eta jarraitu egin genuen. Helburua finalean sartzea da, baina nahiko lan izango dut, maila altua baitago. Aurrera begira, gorago joateko dedikazio handia behar du eta momentuan ez dut modurik ikusten. Orainarte bezala herri mailan jarritu nahi dut. Ez gabiltza diruarengatik, kirola gustatzen zai-gulako baizik eta horrela parekatzen dugu urte bukaerako" dio Axierrek.

Iñaki Azurmendi

24 urte ditu, Arriarango Iturritza baserrikoa, 1'84 metroko altuera du eta harakina da Beasainen.

Orain dela 3 urte hasi zen aizkora serioantzean, inguruan ere animatu duen jendea izan du. Hasieran anaiak laguntzen zion, orain saioen bat Arrospeidekin egiten badu ere, normalean bakarrik aritzen da.

"Uda partean exhibizioetan ibiltzen naiz, aurten udan asko egin ditut, 36en bat. Goierriz gain, Tolosa aldean eta Nafarroa aldean ere ibili naiz. Hau dela eta sasoiaren ibili naiz baina azken hilabeteetan tendinitisa dela eta, ez dut behar bezala entrenatu. Aurtengorako asmoa finalean sartzea da. Aurrera begira, helburua 2. mailara igotzea da. Hortik gora oso zaila da prestakuntza eta astia behar baita" adierazi digu Iñakik.

Iñaki Aierbe

25 urte ditu, Ataungo San Gregorio auzokoa da, 1'79 metroko altuera, 78 kiloko pisua eta lanbidez igeltseroa.

Aizkora aspalditik ari da, beti izan du afizioa eta exhibizioen bat edo beste egin izan du, baina serio prestatzeko orain dela gutxi hasi da. Aitak erakusten dio. Orain arte Gipuzkoako txapelketan bakarrik parte hartu du. "Txapelketa honetan ez dut helburu berezirik, ahal dudana egitea. Ez naiz gehiegi prestatu, lanetik berandu atera eta ez daukat entrenatzeko denborarik. Aurrera begira, piska bat saiatu eta jarraitzeko asmoa dut, ea zer emaitza ematen dugun" dio Iñakik.



Zegamako txistulariak 1974. urtean


Zegamako txistulari bandak lehen saioa egin zuen egunean ateratako argazkia utzi digu Esteban Atxak. Herriko plazan, Juan Telleriaren monumentuaren aurrean ateratakoa da.

Atzean: Lutxi Urbizu, Rosarito Aierbe, Karmen Arizkorreta, Elisabet Urbizu, Juan Manuel Garcia, Joxe Mari Agirre, Arantxa Gorrotxategi eta Maria Jesus Gorrotxategi.

Aurrean: Esteban Atxa, Norberto Urbizu, Pello Arrizabalaga eta Joxe Larrea (zuzendaria).

 **Disco-Shop**
Zure disko denda!

K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76
BEASAIN

 **ARRIZAR BODEGOIA**

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

**AZTERKETA
BAKARRAREKIN**

UNIBERTSITATERA SAR ZAITEZ
25 URTETIK GORAKOENTZAT

LH--1 TITULUA
LOR EZAZU

GRADUATU ESKOLARRA
LOR EZAZU

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37

 **Inprimategia**
EDUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 88 94 82
BEASAIN

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

Argitarapen honen edizioak laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK

Arg.: Xabier Mujika



1. saria Goierriko
odolkirik bikainenak, II.
dastaketan

OIANGUREN HARATEGIA

- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15

☎ 88 01 42

ORDIZIA

PELLO HARATEGIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko

Mariaratz, 2

☎ 88 80 11

BEASAIN



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 88 17 17

☎ 16 05 16

LAZKAO

Oiano Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta bertako
haragitan
bereztasuna

Andra Mari, 3

☎ 88 07 78

BEASAIN

IÑAKI ZUBELDIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

K. Nagusia, 14

☎ 88 27 47

BEASAIN

J. MUJIKA Harategia



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 88 08 78
Etzea ☎ 16 06 02
ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4

☎ 88 28 27

ORMAIZTEGI

ARANZEGI HARATEGIA



Odolki, mondeju eta
txorizoetan bereztasuna

Goen Kale, 8

ORDIZIA

☎ 88 04 26